



argia

2015eko azaroaren 8a | LXXVIII. urtea | 2.482 zenbakia | 3,90 euro



ETXERAKO LANAK

**ALFERRIK
GALDUTAKO
ARRATSALDEAK?**

ALDIZKARIA ERABERRITU DUGU

[ETA HURRENGO ZENBAKIAN IKUSIKO DUZU]

#ErtzetatikArgia



Azaleko marrazkia:

JOSEBA LARRATXE

Azala: ANTZA

KOMUNIKAZIO GRAFIKOA



ARGIAKO edukia kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estixu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua, Garbine Ubeda. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Diseinua: Sergio Labrador. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitz Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknika: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580 Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetza: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza: Euskal Herria eta Espainia: asterokoa, 145 euro; hilean bi ale, 77 euro; hilean behinekoa, 41 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaitza Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia

NON ZER

2015eko azaroaren 8a, 2.482. zenbakia

ASTEKO GAIA

HEZKUNTZA Gehiegizko etxerako lan desegokiei planto.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 4

PERTSONAIA

JOSÉ YOLDI: «El País-en gisako hedabideetan ezin zaio sekula nagusiari pentsatutakoa osoki esan». SUSTRAI COLINA / 9

GAIK

OSASUNAREN AUTOKUDEAKETA Erleen pozoiz sendatu elkarlanean. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 14

EKOSUA Besarkatzen zaituen bero garbia.

AITOR KALTZAKORTA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

HITZARMEN EKONOMIKOAREN ALDEBIKOTASUN

HUTSALA BALEREN BAKAIKOA AZURMENDI / 18

HIZKUNTZAK ERAGILE INSTITUZIONALA BEHAR DU

JAKES BORTAIRU / 20

GURE BASOAK: IZENAK, IZANAK ETA BORROKAK

NORA BARROSO / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN Oroituz. ITXARO BORDA / 20

ERDIKO KAIERA

JAZAR SORMEN GUNEA Egunero sortzen delako.

LANDER ARRETXE BEREZIARTUA / 22

DONBASS: GERRA EUROPAREN BIHOTZEAN Herritarren

bizipenak argitaratu ateratzeko crowdfundinga. AXIER LOPEZ / 26

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URIA / 28

MUSIKA JOXI UBEDA / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO / 30

OSASUNA JABIER AGIRRE / 31

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 32

● **BIZI BARATZEA, EMAN ETA HARTU** / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

IHESI AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALA (GIPUZKOA)

Harkaitz artean hegan. GORKA AZKARATE / 36

TERMOMETROA

ARGIAREN DISEINU BERRIA Indartsua, dotorea, iraunkorra.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA / 40

SÉBASTIEN CASTET: «Euskara ataleko negoziatioek porrot egin dute». MIKEL ASURMENDI / 43

TXANPONAREN BESTE ALDEAK Gaztetxeko egiteko

moduak, behar berrietarako ere balio du.

LANDER ARRETXE BEREZIARTUA / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIAN JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Barbaroen etorrera eragotzi ezin duten hesi

zahar-berriak. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Gehiegizko etxerako lan desegokiei planto

Guraso talde baten proposamena iritsi berri da Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkartera: haurrei irakasleek agintzen dizkieten etxerako lanez gogoeta egitea beharrezkoa dela eta horretarako guraso, irakasle eta ikasleak bilduko dituzten foroak eratu behar direla ikastetxeka. Eztabaidari serio heltzeko ordua da: etxerako lanak bai ala ez? Adin guztietan? Denentzat? Eta denentzat berdinak? Zenbat?

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

Argazkiak: Dani Blanco

ARGI DU Iñaki Larrea Mondragon Unibertsitateko irakasleak: eskolako lanik ez etxean, ez behintzat gaur egun ulertzen ditugun moduan. Izan ere, hezkuntza sistemaren porrota estaltzeko saiakera direla dio: “Ikasleek ordu asko sartzen dituzte ikastetxean, eta horrekin ez da nahikoa? Orduan zerbait ez gara ongi egiten ari. Gainera, eskolan lantzen dutena ikasleen interesekoa bada, eurek bilatuko dituzte loturak errealitatearekin, euren kabuz jarraituko dute eskolaz kanpo galdeztzen, arakatzen, informazioa eskuratzen...”.

Etxerako lanen aldekoek diote diziplina, ardura, autonomia edota ikasketa-ohiturak berenganatzeko lagungarri direla, baina etxeak duen potentzialtasuna aintzat ez hartzea da hori, Larrearen iritziz: “Atzean dagoen logika da hezkuntza arautuak ikasteko balio duela eta hezkuntza ez-arautuak edo bizitzako egoerek ez dutela balio. Baina kompetentzietan edo gaitasunetan gehiago zentratuko bagina eta ez hainbeste edukietan, ikusiko genuke ‘etxeko’ bizitzak, bizitza errealak, ikasteko aukera asko ematen dituela: matematikak lantzeko adibidez, modu artifizialean ikastetik harago (ariketak eginez, formulak memorizatuz), ez al da baliagarria umea dendara erosketak egitera joatea? Zertarako landu matematikak ikasgelan, gero ez bada aukerarik ematen errealitatean aplikatzeko?”. Heziketa integrala oinarri hartuta, etxerako lanek ez al lukete izan behar esperimintatzea, gustuko dutena irakurtzea, naturara txangoak egitea edota ikuskizunak gomendatzea? Eta jakina, haurrek denbora eskaini behar diote atsedinari, aisiari, seni-



ETXERAKO LANAK

deekin eta lagunekin aritzeari, jolasteari... Jolas librearen garrantzia aditu guztiek azpimarratzen baitute, haurren motrizitatea, sormena, autonomia, autokontrola, norberaren trebezia eta potentzialtasunak, mugak eta interesak modu naturalean garatzeko.

Horretarako, ordea, eskolako lanak eskolan egin behar dira, ez etxean, baina maiz ez du denborarik ematen, eta horregatik agintzen dizkiete irakasleek etxerako ariketak. Curriculumean materia gehiegi sartzen dela eta eskuak lotuta dituztela, irakasleen ohiko kexa. Eta sarri gurpil-zoroa da emaitza: eskola-orduetan etxean egindako lanak zuzentzen aritzen dira, eta gehiagorako denborarik ez dagoenez, eskolako lanak

etxean bukatzen. Curriculum zabalari konponbidea ikusten dio Iñaki Larreak: edukiei lotu ordez, konpetentziei lotu; helburua testuliburuko ariketa guztiak egitea izan beharrean, ikuspegi globalagotik landu gaitasunak; proiektuka, egoera errealean oinarrituta, eta egungo curriculum zatiketa alboratuz (orain euskara, orain fisika, orain historia...).

Hainbat gurasoren kezka ulertzen du: "Semea edo alaba gai jakin batean besteak baino atzeratuago badabil, joera beti izango da etxerako lanen bidez orekatzen saiatzea, baina ikastetxeak aniztasun orori erantzun behar dio, bertan dauden ikasle guztiei. Denok une berean gauza bera egite hori apurtu beharko genuke, haurrak robotak bailiran: 'Orain hau egin behar duzue, modu honetan eta iraupen honekin'. Haur bakoitzaren bereizgarriari erreparatu eta bakoitzari erantzungo dion hezkuntza sistema eskaintzen saiatu beharko ginatke, nahiz eta bada-



ETXERAKO LANAK

kidan ez dela erraza, ratioak ere handiak direlako. Baina materiak joan ordez gauzak ikuspegi globalagotik jorratuz gero, errazagoa da haurrak bidean ez galtzea”. Izan ere, irakasleak ezin du espero ikasgelan “iristen ez denari” konponbidea etxeak ematea, eskolaren ardura baita gutxiengoak bermatzea eta ikasleak zailtasuna duen horretan indarra jartzea, eskola-orduetan.

Errepikakorrak eta memoristikoak, gutxi dute pedagogikotik

Curriculum eskolan eman behar dela eta etxeak ezin duela eskolaren jarraipena izan, Lurdes Imaz Euskal Herriko Ikasleen Guraso Elkarte (EHIGE) bozeramaileak adierazi diguna.

Etixerako lanak ezabatzea baino, kopurua eta denbora orekatzea eta eredia aldatzea ikusten du beharrezko. Imazek eredia kritikatu du, normalean ariketa errepikakorrak izan ohi direlako eta guztiei berdina planteatzen zaielako. “Horrek ez du zentzurik, etxerako lanak ikasle bakoitzaren beharretara egokitu beharko lirerateke, eta eskolan landutakoarekiko osagarriak eta praktikoak izan beharko lukete: gai jakin bati buruz eguneroko bultzarako ikasleari balioko dion ariketa planteatzea, proiekturen bat taldeka proposatzea, gurasoekin batera interneten gaiaren inguruan arakatzeta... baina ez fitxak betetzen jardutea”. Azken finean, testuliburua zehatz-mehatz jarraitzeak ez dirudi oso aberasgarria.

Kopurua ere ohiko eztabaida da, jakinik gainera hainbat ikerketaren arabera ez dagoela loturarik eskolako lanei eskaintako denboraren eta emaitza akademikoaren artean. Normalean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleen artean ez dago etxerako lanen gaineko koordinaziorik (Lehenengo Hezkuntzan bakarra da irakaslea), eta ikasgai bakoitzetik agintzen dizkieten etxerako lanak pilatu egiten zaizkie ikasleei. Frantziako Estatuan, 15 urteko gazteak 5,1 ordu eskaintzen dizkio astean eskolako lanei, Espainiakoan 6,5 ordu (ikus alboko orriko koadroa). Nafarroako Eskola Kontseiluak 2011n emandako datuen arabera, egunero ordubete eta 48 minutu baliatzen ditu 15 urteko gazteak etxerako lanetan. 2014an Joxe Amiama irakasleak EHUra egindako ikerketaren arabera berriz, DBHko ikasleen %55ak estutasunez bizi ditu etxerako lanak

“Atzean dagoen logika da hezkuntza arautuak ikasteko balio duela eta hezkuntza ez-arautuak ez duela balio. Baina ‘etxeko’ bizitzak, bizitza errealak, ikasteko aukera asko ematen ditu”

Iñaki Larrea, irakaslea

eta %65ak dio gehiegi agintzen dizkietela. Etixerako lanek gain hartuta, nekatuta eta frustratuta bukatzen duen ikasleak eskolarekiko eta azken batean ikas-prozesuarekiko jarrera ezkorra garatu dezake eta haurraren jakin-mina amatatzeko arrazoi bilaka daitezke eskolako lanak, aditu ugariren ustez. Beste kezka bat ere azpimarratu digu Lurdes Imazek: “Gurasoen kezka jaso izan ditugu, ez dutelako ulertzen zergatik eman behar duen seme-alabak hainbeste denbora eskolako lanak egiten, denbora bestelakoetara eta elkarrekin egotera eskaini beharrean. Tentsio sortzailerik dira eskolako lanak, ariketa gehiegi direnean edota gurasoek ezin dutenean seme-alaba lagundu”.

Zein da gurasoen funtzioa?

TNS Demoscopia ikerketa-enpresaren datuei erreparatuta (2013), Lehen Hezkuntzako haurren %80ak eta Bigarren Hezkuntzako %45ak gurasoen laguntza jasotzen du Espainiako Estatuan. Lurdes Imazen iritziz, gurasoek ez lukete eskolako lanetan eskua sartu behar, gainbegiratu baizik: “Gurasoek ez dute zertan jakin zein den matematikak edo zernahi gai irakasteko metodologia, irakaslea da eta ez gurasoa horretarako prestatuta dagoena, eta haurrak autonomo izan behar du”. Areago, kalterako izan daiteke gurasoen laguntza, gaizki irakatsi dezakeelako edo dependentsia sor diezaiokeelako seme-alabari. Azken

Curriculumean materia gehiegi sartzen dela? Edukiei lotu ordez, kompetentziei lotu; helburua testuliburuko ariketa guztiak egitea izan beharrean, ikuspegi globalagotik landu gaitasunak


finean, haur edo gaztea ez bada gai eskolako lanak bere kabuz egiteko, ez al luke irakaslea —eta ez gurasoa— behar ondoan? Eta ez badu laguntzarik behar, ez al daude soberan etxerako lanak? Francesco Tonucci pedagogo italiarraren hitzetan, “etxerako lanek inoiz ez dute lortzen eskolak uste

duen emaitza: ahulentzako laguntza izan beharko lukete, baina hauek ez dira hain kapaz lan horiek egiteko eta maiz etxean ez dute laguntzarik aurkitzen, maila sozial eta kultural baxuko familietakoak baldin badira. Hala, etxerako lanei etekin gehien ateratzen diotenak dira gutxien behar dituztenak”.

Sarri familiaren egoera sozioekonomikoak baldintzatuta, desoreka sortzen da laguntzen duten eta ez dutenen haurren artean. Etxetik ikasgelara eramaten da seme-alabek gauza ahalik eta gehien eta ahalik eta azkarren jakiteko lehia, eskua sartzen duten gurasoek eta

15 urteko ikasleek etxerako lanei eskainitako denbora

Ordu kopurua astean (2012)



Iturria: ELGA

eskola partikularrek gelako erritmoa ezartzearaino, halako laguntzarik ez duten ikasleak atzean utziz. Baina etxerako lanak perfektu entregatzea da helburua, ala norberak egiten ikastea, bideko akatsak zuzentzen joatea? Zer espero dute irakasleek gurasoengandik? Eta gurasoek irakasleengandik? Komunikazio handiagoa, horra gakoa.

“Etxerako lanek ezin dute derrigorrezkoak eta puntuagarriak izan –gaineratu du Imazek–, ala nota altuagoa jarriko diozu egoera ekonomiko hobea duelako partikularrera joan daitekeenari?”. Amiamaren azterketak dio hamar ikasletik lau doaze-

la eskola partikularretara, etxerako lanak egiten laguntzeko. Baina soluzio pribatu honek beste behin ere irakaskuntza sistemaren porrota islatzen duela nabarmendu du Iñaki Larreak eta hainbat lekutan martxan duten irtenbidea proposatu du Imazek: ikastetxe barruan espazioak egokitzea, zailtasuna duten ikasleek aukera izan dezaten bertan aritzeko, irakasle baten laguntzaz.

Alabari ariketak egiten zizkion aita eta Urnietako eta Usurbilgo esperientziak

Etxerako lanen alde eta kontra, gurasoen artean denetik dagoela kontatu digu EHIGeko bozeramaileak, ikasleak eta erritmoak ere

Ikerketek diote ez dagoela loturarik eskolako lanei eskainitako denboraren eta emaitza akademikoen artean.

ez direla denak berdinak. Baina egungo ereduaren egokitasuna zalantzan jartzen dute gehienek. Frantziako Estatuko guraso elkarte handienak (FCPE) etxerako lanei planto egitera deitu izan du (berdin beste hainbat herrialdetan), eta CEAPA konfederazioak, Espainiako eskola publikoetako 12.000 guraso elkarteren ordezkari denak, etxerako lan

derrigorrezkoak ezabatzea eskatu du, ez izatea puntuagarriak, desoreka handiak sortzen dituztelako.

10 urteko semea ia denbora liberrik gabe estresatuta egunero bi-hiru orduz etxean eskolako lanak egiten ikusita, kopurua txikitzeko sinadura

bilketa abiatu du Eva Bailén madrildarrak eta 130.000 babesetik gora jaso ditu Change.org plataforma birtualean. Kasu bitxia da baita ere Alfonso González irakasle eta guraso espainiarrarena: alaba Lehen Hezkuntzan zegoenean, eskolatik bidaltzen zizkieten ariketa asko eta asko berak egin zizkion. Adibidez, etxera hamar zatiketa ekartzen bazituen egiteko, lehenengoa neskatoak egiten zuen, eta behin ziurtatuta ondo moldatzen zela, gainerakoak aitak bukatzen zituen. “Horri esker, nire alabak gitarra jo du, piraguismoan aritu da, kalera ateratu da jolastera, zorionsu izan da... Orain Bigarren Hezkuntzan dago eta Bikain ateratzen jarraitzen du”.

“Gurasoek ez dute zertan jakin zein den matematikak edo zernahi gai irakasteko metodologia, irakaslea da eta ez gurasoa horretarako prestatuta dagoena”

Lurdes Imaz, EHIGE guraso elkarte

ETXERAKO LANAK



Gero eta leku gehiagotan mahaigaineratu dute gaia. Urnietako eta Usurbilgo ikastolan esaterako, etxerako lanei buruzko ikastaroa jaso dute irakasleek eta beste mota bateko etxerako lanak eskatzen hasi dira. Beste hainbat ikastetxetan, asteko zereginak adosten dituzte, eskola-orduetan burutu ahal izateko moduan.

Gurera etorrita, Urnietako Egape ikastolako Aitor Regillaga gurasoak bere esperientzia kontatu digu. 2014-2015 ikasturtea abiatu aurretik, eskolako ama bat eta biak gaiaz gogoetatzen hasi ziren, 6 urteko semeak hastear zirelako etxerako lanekin. Gainerako gurasoek azaldu zieten kezka lehenik, ikastetxean planteatu zuten ondoren, inkestak ere egin zituzten egoera erreala ezagutzeko (etxerako lanen helburuak betetzen al ziren, zein zailtasun maila zuten, nola egiten ziren...). Horren ondorioz, Egapeko irakasleek hausnarketa abiatu zuten, ikastaroa jaso zuten Joxe Amiama irakaslearen eskutik eta ikasturte honetan murriztu egin dute etxerako lanen kopurua, denbora gutxiago eskatzen duten beste-lako lanak agintzen dituzte. Prozesuan gurasoek, ikasleek eta gainerako eragileek ere parte hartzea nahiko zukeen Regillagak, baina sisteman esku hartzea lortu dutelako kontent da: “Irakasleen ahalegina baloratzen dugu, inertzia puskatzea ez da gutxi eta seme-alabak ere pozik daude emaitzarekin”.

Urnietakoa ez da esperientzia bakarra. Usurbilgo Udarrégi ikastolan esaterako, irakasle eta gurasoengandik sortutako kezkarik tiraka gaiaren diagnostika abiatu zuten 2013-2014 ikasturtean (etxerako lanen inguruko galdeketa egin zieten ikasle eta gurasoekin, eta indargune eta ahulgunez datu bilketa

eta eztabaida izan zuten irakasleek bestetik); ondoren, Joxe Amiamarekin klaustroa jaso zuten irakasleek, eta ikasturte berri honetan aldaketak egin dituzte Lehen Hezkuntzan, bereziki etxerako lanen tipologian. Hala, etxerako lanen xedea da irakurketa sustatzea eta gelarako esanguratsuak diren zereginak aukeratzea: “Etxerako lan esanguratsu bat izan daiteke, adibidez, matematiketan neurri aldaketak ikasten ari bagara etxeko kideen neurriak ekartzea, ondoren gelan neurri aldaketak balio horiekin egiteko”, zehaztu digu Elixabete Goikoetxea Udarrégiko irakasleak. Aldaketaren ondorioak eta emaitzak ebaluatzen joango dira ikasturte honetan zehar, eta Bigarren Hezkuntzan etxerako lanen diagnostika hasi dute baita ere.

Beste ikastetxe batzuetan, astebeterako ikasleek egin beharrekoak adosten dituzte, eta lan horiek eskola-orduetan burutu ahal izateko egiten da plangintza –ordu horietan ariketak egin ez dituenak, horrek bai, etxean amaitu behar–. Gero eta leku gehiagotan mahaigaineratu dute gaia, inplikatu guztien artean bidea erabakitzea helburu. “Planteamendu irekia izan da gurea –azaldu digu Aitor Regillagak–, asmoa ez baita izan etxerako lanei baietz edo ezetz esatea, baizik eta gogoeta egitea, ea baliagarriak eta eraginkorrak diren. Zein helburu dituzte etxerako lanek? Betetzen al dituzte helburu horiek? Eta asmo horiek lortzeko tresna ala azken helburu dira etxerako lanak? Nolakoak dira? Kontuan hartzen al dute ikaslearen errealitatea? Gurasoena?...”.

Euskal Herriko Ikasle Guraso Elkartera iritsi den proposamena abiapuntu, lantaldea sortuko dute EHIGEn, eta nondik joko duten aurreratu digu Lurdes Imazek: “Planteatu beharko litzateke ikastetxeka gaiak sakon eztabaidatzeko bildu daitezela ikasle,

guraso eta irakasleak, eta akordioak adostu ditzatela; eta bigarren urratsa izan daiteke gaia Hezkuntza Sailera eramatea, bertatik bideratu dezaten etxerako lanen inguruan ikastetxeka akordioak lortzeko beharra”. Iñaki Larreak nabarmendu du, gurasoek zeresana duten arren, hezkuntzako adituak eta ikerketak hartu behar direla oinarri, eta gogoratu du adar asko ukitzen dituela gaiak: hezkuntza politketatik hasi eta familia eta lana uztartzeko politketaraino. “Haurrei eta nerabeei zer eskaini nahi diegun erabakitzeak eskatzen du eskolaz gogoetatzea, baina baita eskolaz kanpo dagoen guztiaz ere”. ■

Etxetik ikasgelara ere eramaten da seme-alabek gauza ahalik eta gehien eta ahalik eta azkarren jakiteko lehia, eskua sartzen duten gurasoek eta eskola partikularrek gelako erritmoa ezartzeraino, laguntzarik ez duten ikasleak atzean utziz

PERTSONAIA

JOSÉ YOLDI

«El Paísen gisako hedabideetan ezin zaio sekula nagusiari pentsatutakoa osoki esan»

“...aurrean papera ta atzean papera...”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco



Francoren azken hatsa, trantsizioa... Eta zu kazetari.

Kongresuan gobernatzen zuten prokuradore frankistek euren harakiria sinatu zuten demokraziara pasa behar ginela erabakiz. Diktadura-peko urteek eragindako erru sentimendu itzela zeukaten, zinez zirena demokraziaren maskaraz janzteko premia morala. Hala, ezkertiarak, progresistak, edo besterik gabe, aldaketa desio genuenok eferbeszentzia betean bizi ginen.

Kale kantoi guztietan zegoen manifestazio bat, kazetariok lanbidea adierazpen askatasunaren egarritik ulertzen genuen, azken odol tantaraino borrokatzen genuen idazten genuen hitz bakoitza... Orduko inongo kazetarik ez zuen onartzen kaketx bat aldatzea, hitza galarazten zigitenean sekulako zalaparta izaten zen, zentsura arazo bat zen eskuinarentzat. Karrikan, ordea, ez zenuen paperean zenuen askatasunik. Manifestazio batera joan eta pare-

JOSÉ YOLDI

koek kazetaria zinela susmatze hutsa aski zen muturra txikitzeko. Poliziak ez zuen jasaten bere gehiegikeriei oihartzuna ematea. Horixe zen zegoena, eta hala ere, egungoa baino prentsa libreagoa zen. Egunkariak bankuen esku dauden garaiotan, ez dago zentsuratzea baino errazagorik, ez daukazu telefonoa hartu beharrik ere.

Zentsuraren atzaparretatik libre, ez zineten ohartu GALen atzean zegoenaz?

Hastapen-hastapenean ez, baina nahiko azkar antzeman genuen nondik nora zihoazen tiroak. Izugarrikeria da GALena, barrabaskeria hutsa. Garai hartan, ordea, bestelakoa zen Espainian pausatzen zen dilema: “Zer nahia- go duzu, hiltzen gaituztenak garbitzeko komandoak sortzea ala estatu kolpea?”. GAL agertu zenean, estatu kolpe saiakera eta arriskuak etengabeak ziren. Militarrak frankismoaren morroiak ziren, alderdi komunistaren legeztatzeak asaldatuta zebiltzan eta kuartele- tan ez zegoen estatu kolpeak proiektatzea beste zereginik. Agintera iritsi zenean, Felipe González urak baretzen ahalegindu zen, baina ibaia nahasi eta zikin zetorrela ohartu- rik, GALi aurrera egiten laga zion. Errazena egin zuen, errotutako ekinbide bati bide eman. Izan ere, gerra zikina GALekin hasi eta GALekin bukatu zela uste dute askok, baina lehenagokoak dira Batallón Vasco Español eta enparauak.

Ustelkeria ere ordutik dator?

Frankismoan ahaltsu eta agintarien arteko negozioak eskutik eskurakoak ziren eta ongi lotuta utzi zuten dena. Trantsizio garaian negozioek bere horretan segi zuten, baina gure begiek arlo politikoari erreparatzen zioten, ez hainbeste mahaiepeko ekonomiari. Diktaduratik gendozen, muturrak oso markatuta zeuden, eta bakoitzak bere aldera ahal bezainbat tiratzen zuen arren, sokarik ez haustea zen garrantzitsuena. Sokarik hausteko arriskurik ez zegoenean, 90eko hamarkada- dan, *pelotazoaren kulturak* biltzen duen ustelke- ria kasuen udaberria loratu zen. Jende oso boteretsua zipriztindu zen, jende ahaltsua harrapatu, baina gardentasunaren eta zintzo- tasunaren ikasgaiak barneratu beharrean, “zuk ez baduzu lapurtzen, beste batek ostuko du eta zu tonto hutsa izango zara!” leloa zabaldu zen. Horregatik segi dute ebatsi dituztenak ebasten. Alabaina, ez gaitezen engaina, alderdi politiko baten inguruko iker- keta bat abiatzen denero ez da Estatuaren kontrol egiturak zoli ibili direlako, sistema ustel horretatik kobratzen zuen eta baztertua izan den norbait hizketan hasi delako baizik. Pozueloko zinegotzi baten mendekutik datoz

Gürtel eta Bárcenas auziak, ez Estatuaren zorroztasunetik. Non daude Estatu egiturak?

Inork jakitekotan, zuk jakingo duzu.

Ez dakit ez Estatu egiturak non dauden ezta zertarako balio duten ere. Zertarako balio du Kontuen Auzitegiak? Alderdi politikoei buruz- ko ikerketa bat zabaltzen denero, PPK eta PSOEek proposatutako bi sailburuk dute iker- tzeko ardura. Ezagutzen duzu otsokia jaten duen otsorik? Ustelkeriaren aurkako sarea lodia dela uste du jendeak, horregatik eskapa- tzen direla arrain zenbait. Alderantziz da, ordea. Oso sare fina da, finegia. Arrain txiki guztiak harrapatzen ditu, baina arrain handiek euren pisuarekin puskatzen dute sarea. Denok dakigu Rajoy Bárcenasen paperetan ageri dela, espexera bidean zenean animo mezua bidali ziola, baina uste duzu epaile batek deklaratzera deituko duela? Inpunitate osoa dauka, sarean harrapatuta ere sarea hausten du.

Nola josi zen “Dena ETA da” sarea?

Dorronsoro Malaxetxebarria ETako kidea- ren atxiloketan topatutako paperetan, ezker abertzale osoaren organigramak, etorkizune- ko asmoak, egitura eta erakunde bakoitzaren egin-beharrekoak... zirenak eta bi atzeman zituzten. Hala, mataza osoa desegin arte tira zion hariari Garzonek. Pasa egin zirela? Bali- teke, baina ez paperen erabileran, guardia zibil edo poliziaren txostenak frogatzea bezala erabiltzean baizik. Aski zen tipo bat borroka antiterroristan aditua zela esatea bere txoste- na frogatzat hartzeko, eta gehien-gehienetan, txosten horiek gerta zitekeenari buruzko an- lisi pertsonalak besterik ez ziren. Garzonek bazekien ETaren indarra ez zegoela koman- doetan soilik, eta makinaria ongi olioztaturik, ingurua itotzeari ekin zion. Ezker abertzalea arnasarik gabe utzi zuen, horrek mugimen- duaren baitako krika-krakak azaleratu zituen, eta azkenean, ezker abertzaleak berak esan dio ETari bukatzeko.

NORTASUN AGIRIA

José Yoldi. Donostian sortua, 1954an. Kazetari eta idazlea. Europa Press agentzian egin zituen lehen urratsak eta 1983an hasi zen *El País*en. 29 urte eman ditu bertan, auzitegieta espezialista, Espainiako Barne Ministerioko korrespondentsal eta ikerketa taldeko kide izanez, 2013ko EREak lanik gabe utzi zuen arte. Tarte horretan, hainbat eskusiba eman ditu argitara, hala nola, Carlos Divar Auzitegi Goreneko presidentea dimititzera eraman zuena. 2009ko Kataluniako Giza Eskubideen Institutuaren eta 2012ko kazetari aipagarrienaren Victor de la Serna sariak eman dizkiote. *El último recurso*, *Peor habría sido tener que trabajar* eta *El enigma Kungsholm* liburuen egilea da.



Eta nork esango dio Espainiari ingeniartza juridikoa bukatzeko, legerik ez behartzeko?
Hasieratik egon naiz Parot doktrinaren aurka. Europaz paso egin eta Frantzian betetako kartzela urteak Espainian aintzat ez hartzea

onargaitza zait. Solitarioan jolasten hasi eta tranpak egitea baino miserableagorik ez dago. Demokrata bazara, zure buruari jarri dizkionun legeak bete behar dituzu, ez dago besterik. Nazioarteko zuzenbidean, ordea, astoa



OFF THE RECORD

Nobela

Itxura, boza eta koaderno lagun, ez da zaila José Yoldi auzitegiko pasilloetan edo pareko kafetegian bat eta bestearekin hizketan irudikatzea. Kazetari ikertzaile edo ikertzaile kazetari, bere nobeletako pertsonaia dirudi, batez ere komunitateko presidentea dela aitortzen dizunean. Ez dago esan beharrik komunitateko presidentea Estatu-koa baino zorrotzago ikertzen den herrialdean kokatzen dela nobela.

eta azenarioarena gertatzen da, zigorrik ezean alferrik direla errietak. Onerako edo txarrerako, nazioarteko zuzenbidearen zigor arloa lotsan oinarritzen da, harrapatuz gero dimititzean. Jakina, Norvegiar edo Alemaniaren balio du horrek, Espainiar ez. Espainiar inork ez du dimititzen, eta okerragoa dena, mesede bat egin izanaren uste osoz lasai-lasai egiten dute lo.

Zuk argitaratutako informazioaren ondorioz, alta, Carlos Divar Auzitegi Goreneko eta Bote-re Judizialeko presidentek dimititu behar izan zuten.

Baina ez zuten berak dimititu, dimitituarazi zuten. Carlos Divarrek espiritu santuaren oinordeko zuzentzat dauka bere burua, eguneko 24 orduak Auzitegi Goreneko presidentea zela aldarrikatzen ematen zituen, eta atera nuen informazioak hormaren aurka jarri zuenean oso gaizki kudeatu zuten egoera. Erregea bezala, antzerki apur bat egin eta berriz gertatuko ez zen akats bat izan zelako damututa agertu balitz, bere postuan jarraituko zukeen, sosa itzulirik edo itzuli gabe. Oilarra baino tenteago jarri zen, ordea.

Prentsari azalpenak emateari uko egin zion, eta akats larriagoa dena, etxekoei ere ez zien txintik esan nahi izan. Harrokeria horregatik kendu zuten paretik, ez eskua poltsan harrapatu nuelako. Hala, eskandalua lehertu zenean, lagun bati halakorik ez zaiola egiten leporatu zidaten bere jirakoek. Ez, ez, ez, 30 urteko errespetuzko harreman batek ez du inor lagun bihurtzen. Iturri bat zen niretzat, ez gehiago ez gutxiago. Berak ETArekin kolaboratzen ari naizela susmatuko balu atxilotuko ninduke, ezta? Ni kazetaria naiz eta tipo hori ustela dela frogatzeko elementuak baldin baditut, kontatu egingo dut. Bizitzan idatzi ditudan zaplazteko periodistiko handien bezperetan beti eman diet jo-puntuak nituenei defendatzeko aukera, baina hortik aurrera...

Esklusibarekin nagusiarengana.

Esklusiba batek harrotzeko motibo behar luke egunkariarentzat, baina sekulako buruhaustea izan daiteke zuzendariarentzat. Denetik dago. Kazetari batzuk esklusiba gezurta ezinetan dira espezialistak. Zuk ETAk arma nuklearrak dauzkala argitaratzen baduzu, nork egingo dizu kontra, ETaren prentsa bulegoak? Hori ez da ez esklusiba ez ezer, eta zure nagusia kazetaritzaren deontologia izanda ere lasai joango da etxera. Alabaina, El Corte Inglésen alde bateko eta beste anaiak haserretu direlako barne gerra

Juantxo
TABERNA

Ogitarteko
eta **pintxo**
bero zein hotzetan
espezializatua

Enbeltran kalea, 6 · 20003 DONOSTIA · 943 427 405

TXALUPA

Janari
tradizionalean
espezializatua

Jatetxea
Taberna

☎ 943 429 875
Fermín Calbetón, 3
20003 Donostia

dagoela deskubrituko bazenu, zurbil baino zurbilago begiratuko lizuke. Ederki daki El Corte Inglés bere fakturazioaren %1 medioetan publizitatea jartzen inbertitzen duela. Halaber, nola uste duzu begiratuko dizula zuzendariak administrazio kontseiluan bere ondoan esertzen den eta ostiralero padelean kide duen bankuko presidentearen trapu zaharrak aineratzen badituzu? Notizia batzuk ezinbestez publikatu behar dira, ez dago beste erremediorik, baina kazetaritzak itzal asko ditu. Zenbat mediok jarraitu dute oso berandura arte, gezurretan ari zirela jakinda, Martxoaren 11ko atentatuen atzean ETA zegoela zabaltzen, PPren inguruko diru eta informazio iturriak ez ixtearren?

Medioan bertan dago ikerketa kazetaritzaren etsai handiena?

Hedabideak botere ekonomikoaren esku lagata mozten zaizkio ikerketari hegalak. Ikusi duzu Banco Santanderri, BBVAri edo El Corte Inglési buruzko ikerketa erreportajerik? Ez. Siriako mugan klandestinoki sartzeari deitzen zaio ikerketa kazetaritza, eta zergatik ez esan, bahitzen bazaituzte askoz hobeto, audientzia altuagoa. Lubakietako kazetaritzaren izugarritzko pedigria daukagu. Errefuxiatuen trenean joan nahi dugu, etorkinen pateran itsasoa zeharkatu... baina noiz hasiko gara boterea daukaten indarrak ikeretzen? Prentsa bulegoek dena kate motzean lotuta daukatela? Ados, horretarako daude, galderarik sortzen ez dizkizuten errealitateak saltzeko, euren lana zurea erraztea dela sinestarazteko. Ez dut sekula ahantziko gaur egun hedabide handi batean zuzendaria denak Barne Ministerioko prentsaburua zenean, egiten nion galdera egiten niola, erantzuten zidana: “Ez dugu ez baieztatzen ez gezurtatzen... ezta baztertzen ere!”. Beti pentsatu dut esaldi horren atzean errefuxiatuen tren batean baino zer ikertu askoz gehiago zegoela.

Barne Ministerioan gaudeno, ikertu dezagun botereen arteko banaketa.

Hauteskundeetan lortutako gehiengo osoari esker, parlamentua eta gobernua PPrenak dira, baita buruzagitza judiziala izendatzen duten botere judizialeko bokalen hautaketa ere. Hori hala, egun Gürtel auzia epaitzea dagokien bi magistratuetik bat PPekin afinitatea edukitzeagatik errekusatuta dago, eta bestea sute tamalgarri haren ondorioz Gaztela eta Leongo Juntako sozialisten aurkako jazarpena antolatu zuena da. Bi epaileok sena galdu eta akusatua kondenatuko balituzte, Auzitegi Goreneko bigarren salara iritsiko litzateke afera, eta horko presidentea ere PPK aukeratua da. Gaizki pentsatzeko gai ez garen jende xaloa garenez, demagun hor ere kondena egongo direla eta azken hitza Konstituzio Auzitegiak izango lukeela. Kasualitatea zer den, Konstituzio Auzitegiako presidentea, kargua hartu bezperetaraino, PPKo militantea zen. Botere banaketaz ari ginen, ezta?

2013ko EREak banatu zituen *El País* eta zure bideak.

Ni ez ninduen EREak kaleratu, nagusiek bota ninduten. Traba nintzen eurentzat, euren arauak betetzeko exijitzen zien eta lankideengan eragina zuen erresistente bat. Estilo liburu bat baldin badaukazu aplikatzeko da, erredakzioan estatutu batzuk baldin badaude betetzeko dira... Ez nintzen isiltzen, pentsatzen nuena esaten nuen eta *El País* bezalako hedabide batean ezin zaio sekula nagusiarri pentsatutakoa osoki esan. Hala, *El País*etik kanpo ere bizitza badagoela ikasi dut, baina horrek ez du esan nahi ez zidanik minik eman. 29 urte darमतazunean egunkari baten alde larrua jokatzen... Etxeko buzoian ez da inoiz nire izenik egon, telefonoa ez zegoen nire izenean, nire seme-alabei edozein pakete irekitzea debekatu diet beti... Soldataren parte zen eta ez nuen omenaldirik eskatzen. Hori bai, ez nuen etxe-koen bizkarreko labankadarik espero. ■

GORROTXATEGI



Egile Turroiak

Gorrotxategi Maisuaren Sorkuntza

Gorrotxategi

www.gorrotxategi.com

OSASUNAREN AUTOKUDEAKETA

Erleen pozoiz sendatu elkarlanean

Ostegunero eguerdiko 12:00etatik 14:00etara dute hitzordua medikuak, erlezainek eta gaixoek. Erleen zitzadak ezarriko haiek hauei. Dirurik ez da tarteko. Bai ordea bateko eta besteko botikekin sendatzea lortzen ez duten erien osasuna hobetu nahia eta erleen ahalmenei buruzko jakintza handia. Okzitaniako Besiers/Beziers ondoan gertatzen da.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |



L'ABEILLE ME SOIGNE

Jean Baptiste Thouroude doktorea gaixo bati erlea jartzen. Bien artetik ageri da Alain Merit, erlezain eta elkarteko kidea.

ERLEAK eta gizakiak aurkitu ditugu elkarlanean “L’Abeille me soigne” (Erleak artatzen nau) elkartearen babesean Pezenas herrian (Okzitaniar, Besiers eta Montpellier artean). Zenbait mediku eta terapeutaren egoitza den La ruche (Erlauntza) egoitza txikiaren gela batean bildu dira. Erleak eraikinaren kanpoko aldeko dozena erdi kofoinetatik bildu dituzte kristalezko potoetan eta bi orduz jarriko dizkiete larruazalean bertaratu diren gaixoei.

Alain Merit erlezaina da elkartearen diruzaina eta apiterapiaren militante sutua aspalditik. Berekin batera heldu dira astero beste erlezain batzuk, behar denean laguntzera.

Taldearen arima Maryse Pioch da. Gaztetan atletismoan elite mailan aritua. Esklerosi

Erleak non jarri

Erleak akupunturak esandako txokoetan jartzen dituzte baina baita ere gaixoak berak mina daukan edo on egiten diola sentitzen duen puntuetan.

Anizkoitzak aulki gurpilduneraino makaldu zuen. Erlezain familiakoa izan arren, ez zuen hauen laguntzaren bila jo harik eta gainerako terapia mendebaldarrek kale egin zioten arte. Liburu bat dauka idatzia 2005etik aurrera bere gaixotasuna Seignalet erregimenarekin eta erleekin nola artatu duen kontatuz.

Liburuaren hitzaurrea Henry Joyeuxek egin zion. Montpellierreko unibertsitatean irakasle, zirujau eta kantzerologo, argitalpen ugariaren egile, osasun arloan oso popularra da Frantzian. Webgune famatua ere badu. Joyeux doktoreak bere ohorez zabaldu dio babesezko estalkia elkarteari.

Eguneroko praktikan Jean Baptiste Thouroude mediku eta akupuntoreak asesoratzen

ditu Pezenasera biltzen diren gaixo eta erlezainak. Medikuntza ikasi ostean, akupuntura ikastera joan zen Txinara. Erleez interesa baldin bazuen ere ez zen horien pozoia akupunturako txokoetan ezartzen hasiko baldin eta ez bazion eskatu arren eta arren Esklerosi Anizkoitz oso gaizto bat nozitzen duen Lisaren amak. Ez da harrizkeoa ama hau, Cathy Canut, izatea elkartearen lehendakaria.

Osteguneroko hitzorduaz gain, tarteka ikastaro bereziak antolatzen dituzte Pezenasen. Larunbat oso batez, bertaratu direnek erlearen eta bere produktuen sendatze ahalmenen informazioa jasotzen dute goizean eta arratsaldean praktikan nola erabiltzen den ikasten.

Argi konprenitu behar da Pezenasen egiten dena. Hemen ez da titulurik ematen, ez kontsulta mediku ordaindurik, ez inolako produkturen promoziorik. Helburua da behar duen gaixoari eta bere ingurukoiei erakustea zernola egin erleekin, gero berak bere kasa egin ahal izan dezan. “Helburua eria autonomo izatea da”, errepikatuko du Thouroude doktoreak. Zergatik?

Frantzian oso estu pertsegitzen ditu Medikuen Elkarteak ortodoxiatik ateratzen diren profesionalak. Bestetik, formatu gabeko pertsonak terapeuta papera errazegi egitea saihestu nahi da. Gaixoaren ikuspegitik osatu argudioa: diru asko behar da osasungintza publikotik kanpoko terapiaren bat jarraitzeko. Sekulako zortea du gaixo batek erlearen terapiak on egiten badio eta diru saririk gabeko auzolan mota hau dagien norbaitekin edo talderen batekin egiten badu topo.

Aitonari 20 ezten jarriko dizkiogu

Urriaren 17ko ikastaro azkarrean baginen, medikuaz eta erlezainez gain, klase ezberdinetako gaixotasunen jabeak: Esklerosi Anizkoitza, Esklerosi Lateral, Espondilitisa, Parkinsona, Poliartritis, Lunbalgia...

Arratsaldeko saio praktikoan aitona parkinsoniano batek eskaini zuen bere soina bertan zirenek erlez ziztatu zezaten, medikuak agindutako puntuetan. Giro lasaian, gizona bi dozena ziztada hartzen ohituta dagoelako. Bertaratutako beste batzuk bezala, erleen pozoitari beldurra galtzeko baino dagonekoz hartzen dituzten ziztadak non-nola hobetu ikastera etorriak zirelako.



Maryse Pioch etxean ariketa fisikoa egiten Esklerosi Anizkoitzak eragin dizkion matxurak hobetzeko.

Zortea du gaixo batek erlearen terapiak on egin eta diru saririk gabeko auzolan mota hau dagien norbaitekin edo talderen batekin egiten badu topo

Hasi nahi duenari eskatzen zaio alergiaren froga egina ekartzea. Sinatzen du agiri bat esanez garbi azaldu zaizkiola arriskuak (ohikoa ez izan arren gerta liteke *shock* anafilaktikoa, heriotza ere eragin lezakeena) eta bere gain hartzen duela terapiaren ondorioen erantzukizun oro.

Giroa alaia da, broma asko ere bai tarteko, baina hau ez da jolasa. Hasieran erleen pozoia zati txikia jasoko du gaixoak, beranduago eztenkadak osorik eta dosiak gero eta handiagoak, gero eta ugariago.

Txinan Thouroudek ikusi du saio batean emakume bati 200 erle jartzen bizkarrean. “Baina iruditzen zait han eta hemen oinazea diferente bizi dugula”. Saio praktikoan boluntario bere ipurdi-gaina eskaini duen emakumeari 20 bat jarri dizkiote. Ez da kezatu: erleekin hasi aurretik ohetik jaiki ezin omen zen, morfina behar oinazeak arintzeko.

Mendebaldeko medikuntzak eskaintzen duenaren osagarritzat lantzen dute Pezenasen erlea. Minbiziarentzako kimioa hartzen duzula? Inork ez dizu esango terapiari uko egiteko, baina hartu propolia ere dosi handitan. Berdin Esklerosi Anizkoitzarentzako ospitalean tratamendu esperimental bortitza ematen badizute, saiatu erlauntzako produktuekin eta erleen ziztadekin.

Munduan badira Pezenasera bezalako talde gehiago, asko medikurik gabe erlezain eta gaixoz osatuak. Adibide bikaina erakusten du Internetez ikus daitekeen *Love and Venom* (Maitasuna eta pozoia) bideo labor zirrargarriak. Euskarazko azpituluz ikus daiteke. AEBetan Ohioko Wellington herrian Don Downs erlezainaren etxean ia egunero biltzen dira gaixoak eta boluntarioak elkarri erleen ziztadak jartzera.

Thouroude medikuak esan bezala, test zientifiko asko egin beharra dago oraindik demostratzeko zein den apiterapiako produktuen benetako balioa. Baina bere bizia gaixotasun larri batek esku artetik daramakiola nabaritzen duenak ez du astirik.

Esklerosiak aulki gurgildunera kondentatu duen Lisaren gurasoek erleekin aukera bat ikusi dute. Gaixotasunaren erasoak geratzeko edo, gutxienez, kimioterapia esperimentalak eragin dizkion alboko kalteak arintzeko. ■

EKOSUA

Besarkatzen zaituen bero garbia

Butanodun “katalitika”, aire beroa botatzen duten berogailuak, erradiadore zaharrak, kerosenoa barreiatzen duten estufak... Ezagun ditugu hotzari aurre egiteko manierak. Alta, zein da horien guztien artean osasungarri eta efizienteena? Ekosuako kideek dute giltza: etorkizunak sutondora garamatza bueltan.

| AITOR KALTZAKORTA |

AZKEN MENDE LUZEAN mundu osoan aurrera eraman den baliabide energetikoen ustia-ketak sekulako sarraski ekologikoa eragin du. Egun indarrean den ustezko garapen-ereduak krisi energetikoa darama besapean, eta, nahitara ala nahi gabe, naturaz haragoko ondorio humano, sozial eta ekonomiko latzak dakartza. Makro mailakoak, noski, baina baita ere gure egunerokoan, patrikan zein osasunean bederen, agerikoak direnak. Argiaren fakturak, besteren artean, ematen digu horren neurria.

Euskal Herriko dependentzia energetikoa %90ez gaindikoa da eta bertan sortutako energia berriztagarria %8ren bueltan dabil. Lehenak eragiten duen kostu erraldoiari aurre egiteko efizientzia energetikoa urratsak emateko saiakerak ugari egin dituzte azkenaldian eragile, norbanako eta instituzio zenbaitek.

Horren adibide dugu Ekosua: energia aurrezten eta efizientzia areagotzen duten berogailu ekologikoak eta osasungarriak diseinatu eta komertzializatzen dituzte Argiñaritzen (Nafarroa) duten lantokitik. Ziur aski berogailu saltzaile batek baino gehiagok esango du bereak ere halakoxeak direna. Alta, Ekosuak eskaintzen duen etxea berotzeko sistema bakarra eta aitzindaria da Euskal Herrian.

“Berrikuntza”, baina, bost mendez gaindi dituen teknologia baten eskutik ekarri dute. Berogailu metatzaile zeramikoa Erdi Arotik Europa iparraldean erabiltzen den tradiziozko produktua da. Iberiar penintsulan dokumentatuta dagoen mota horretako berogailu bakarra Bergarako bat izan zen, tokiko jauntxo batek Karlos V. aren bidez ezagutu ondoren XVI. mendean erositakoa.

Bero ekologikoa


Biotzariko (Nafarroa) beren etxean hartu gaituzte Ekosuako Sara Herrero eta Xabi Perezek, Axular txikia altzoan dutela. Atentzioa ematen du, jadanik hotza egiten hasi den arren, etxebizitza epelaren erdialdean nagusi den tximinia itxurako berogailu ederra itzalita ikusteak. Hortxe dago koska, ordea. Izan ere, ordubetez berogailua piztuta edukitzeak egun osorako epeltasuna bermatzen baitu.

“Gure produktua ezagutzera eman nahi dugu, jendeak etxea bero mantentzeko alternatiba jasangarri eta osasungarriak badaudela jakin dezan”, esan digu Herrero. “Ipar Europan oso ezagunak dira eta han ikasi dugu guk, Alemania, Austria eta Danimarkako berogailu egile maisuen eskutik. Lehenik etxea nolakoa den ikusi eta haren isolamendua eta distribuzioa aztertzen ditugu. Hori jakinda estufa diseinatzen dugu, eta aukera asko ematen digu estetikarekin jolasteko. Artisau lana da eta astebetetz egoten gara berogailua egiten lekuan bertan. Ez da di-da instalatzen den aparailu bat”.

Egurra baino ez du kontsumitzen, eta gutxi gainera. Erradiazio bidezko epeltasuna sortzen du. Horrek hormak eta lurra berotzen ditu inertzia termikoaren bidez, eta airea

Guztiok ezagutzen ditugun ohiko konbekziozko berogailuen aldean, erradiazio bidezko sistemak askoz gutxiago kontsumitzen du eta askoz kutsadura gutxiago botatzen du

AITOR KALTZAKORTA





EKOSUA



berotu ordez giroa goxatzen du zuzenean: “Berogailu hauekin, etxean sartzen zarenean berotasunak besarkatu egiten zaitu”.

Perezek ere ez du zalantzarik egiten: “Oso erosoak dira, egunean behin baino ez zaiolako bota behar egurra. Konbustioa ordubeteko da, baina berotasunak egun osoan zehar irauten du. Goizean berogailua piztu, eta etxera iristean goxo aurkitzen duzu”.

Konbustioa motza izateak bizilekuaren segurtasunaren ikuspegitik ere badu garrantzia, berogailua berez segurua den arren, sua denbora laburrez piztuta egotea nahigabeak ekiditeko biderik onena baita. Gainera, oso errauts gutxi ateratzen dute –sutara botatakoaren %2 inguru– eta askoz gutxiago zikitzen da tximinia, oso tenperatura altua hartzen baitu, 800-900 gradu artekoa. Tenperatura horretan errautsa desintegratu egiten da eta oso hondakin gutxi isurtzen da airera.

Bero osasungarria

Etxe gehienetan erabili ohi den konbektzio bidezko beroak airea eta haren partikulak erretzen ditu, eta hori asko nabaritzen da giroan. Arnasari lotutako arazoak dituen jendearentzat desegokia da. Ekosuak darabilen erradiazio bidezko beroak, aldiz, ioi negatiboak botatzen ditu eta hori oso onuragarria da osasunerako. Konbektziozko berotasunak ioi positibo asko isurtzen ditu, eta horregatik egoten da giroa hain “kargatuta”. Asma arazoak, buruko mina eta abar izaten dira eragin nabarmenenak. Konbektzio bidezko berotasunarekin, gainera, beroa estratifikatu egiten da: aire beroa gorantz doa, eta freskoa behean geratzen da. Bero erradiatzaileak, aldiz, izpi infragorrien bidez bero-

tzen du, eguzkiak bezala, eta epeltasuna uniformeagoa da airea ez baita apenas berotzen.


Finan, guztiok ezagutzen ditugun ohiko konbektziozko berogailuen aldean askoz ekolojikoagoa da, askoz gutxiago kontsumitzen du eta askoz kutsadura gutxiago botatzen du erradiatzaileak.

Diru-laguntzarik gabe

Sistema honek burujabetza handia ematen dio erabiltzaileari. Hamar urtean behin zirkuitua garbitzea da behar duen mantenu bakarra. Artisau lana da berogailu hauek egitea, eta ez da negozio errentagarria zaharkitze programatuan, etengabeko mantentze beharreak eta erabili eta botatzeko produktuetan oinarritzen diren industria handientzat.

Herrerok eman digu gako: “Estatuak efizientzia energetikoa diruz laguntzen omen du, baina harrigarria bada ere, sistema honen zabalpenak ez du laguntzarik jasotzen: EVE-rekin (Energiaren Euskal Erakundea) eta Nafarroako Gobernuarekin egon gara, eta azaldu diegu zer egiten dugun. Berogailuok ez dute argindarrik kontsumitzen, ez daukate botoirik, ez dute mantenerik behar... Baina ez dute diruz laguntzen ez delako dirurik mugitzen eta ez delako negozio ona elektrizitate enpresentzat”.

Perezek esanetan, “ez da estufa batekin konparatu behar, etxe osoari beroa emateko sistema baita. Ezagutzen ez duenak garestia dela pentsa dezake, baina errealtatea kontrako da, oso azkar amortizatzen baita. Beste produktu batzuek galdara, iturgintza, erradiadoreak eta abar behar dituzte. Honen prezioan dena dago sartuta”. ■



MADDI SORROA

**Baleren
Bakaikoa
Azurmendi**



EHUKO
IRAKASLEA,
EKONOMIALARIA

Hitzarmen ekonomikoaren aldebikotasun hutsala

EKONOMIA HITZARMENA, beste behin, auzitan dago. Espainiako Estatuak zentralizatu eta modu bakarrekoa gura dutenek pribilegioa dela diote, bertan behera geratu bertan duen pribilegioa, espainiar hiritar guztiak berdinak izan behar baitute eta berdintasun horren aurka omen doa Hitzarmena. Aldebikotasun legea balitz, hau da, berdinen artean eratutako legea balitz Ekonomia Hitzarmena, ez ginatete beldurrez egongo euskal hiritarrok. Baina Estatuak du eskumena eta EAeri eta Nafarroari lagatako zerga araua da, hemengo erakundeek kudea dezaten.

Bidenabar, azpimarratu behar da gobernu zentralari ordaintzen diogun Kupoak, solidarioa dela alde aunitzetik: Estatuak eratutako Funtsa Solidario delakoari %6,24ko ekarpena egiten zaio; Estatuak gordetako eskumenak finantzatzeko portzentaje bera ekartzen diogu; EBri Espainiako Estatuak ekarritakoaren %6,24 ordaintzen dugu, baina kasu honetan Hego Euskal Herriak EBtik guk jarritakoa baino gutxiago eskuratzen dugu, ez ordea Espainiako Estatuak; Estatuak zor publikoarengatik ordaindu beharreko interes erraldoien %6,24 gauzatzen dugu; azkenik, Kupoaren portzentajea gainbaloratuta dago, gure BPG eta populazio erlatiboa %6,24tik behera baitago (%6,14 eta %4,63, hurrenez hurren).

EAEko harremanak Estatuarekiko modu honetako aldebikotasunean oinarritu nahiak ez du etorkizunik eta hori ikusi beharko luke Urkullu jaunak. Estatu bateko azpi-estatuak, kasuan EAE eta Nafarroako Foru Erkidegoa, eta Estatu bera ezin daitezke parean egon, baizik haien gainetik. Horregatik auzitan jartzen digute Ekonomia Hitzarmena

Hemendik, EAEko harremanak Estatuarekiko modu honetako aldebikotasunean oinarritu nahiak ez du etorkizunik eta hori ikusi beharko luke Urkullu jaunak. Estatu bateko azpi-estatuak, kasuan

EAE eta Nafarroako Foru Erkidegoa, eta Estatu bera ezin daitezke parean egon, Estatu haien gainetik baizik. Horregatik auzitan jartzen digute Ekonomia Hitzarmena.

Ekonomia Hitzarmenak berdinen arteko adostasun itxura dauka bi herrialdeetako ordezkariak osatutako Batzorde Mistoa gauzatzen delako. Edozein izanda ere desberdintasuna, Batzorde Mistoa horretan argitzen dira diferentziak eta erdietsitako testua Estatuak onesten du eta berdin Nafarroak edo EAEk.

Horrela, itxuraz bederen, aldebikotasuna ematen da. Alta, hori gezurtatzeko nahikoa dugu 2002ra itzultzea. Izan ere, aurreko Ekonomia Hitzarmena, 1981ekoa, 2001eko abenduaren 31n amaitzekoa zen eta berri bat negoziatu. Negoziazio horrek ez zuen fruiturik eman eta gobernu zentralak, Aznar buru zela, indarrean zegoen testua luzatu zuen, Jaurlaritzaren eta hiru euskal aldundien gainetik pasaz. Luzapen hori gauzatu aurretik, EAJko zenbait eledunek esan zuten horrelako zerbait gertatzen bazen, gerra aitorpentzat hartuko zela: ez zen ezer gertatu.

Jokaera horrekin gobernu zentralak garden utzi gura zuen nork duen agintea. Nafarroak edo EAEk emaniko eskumenak bakarrik dituzte eta edozein unetan bertan behera gera daitezke. Hala ere, autonomia erkidego orok ez ditu eskumen berdinak, EAEk eta Nafarroak foru sistema gorde baitute.

Ibarretxeren Estatu berriak ere horrelako zerbait proposatu zuen, baina badakigu nolako muturrekoa eman zion Estatu Legebiltzarra. Eztabaidatzen ere ez zuen utzi. Hor ikusten da Estatu alderdi nagusien borondatea barne nazio arazoak konpontze aldera.

Gaur egun ere, Jaurlaritza saiatu da Espainiako gobernuarekin solasten. Baina ez du erantzunik jaso. Horrek adierazten du zer-nolako jarrera duen "pareki-deak". Beraz, aldebikotasunak jai du eta erreala da aldebikotasunetik jotzea, Kataluniaren afera ikusten den moduan, Espainiak bakarra eta unibertsala izaten jarraitzen baitu. ■





DANI BLANCO

Jakes Bortairu

EUSKAL KONFEDERAZIOKO KIDEA ◆

Hizkuntzak eragile instituzionala behar du

IPAR EUSKAL HERRIKO Lurralde Kontratua prestatzeko, euskara lan taldeak hizkuntza biziberritzeko urrats kualitatiboan nahiz kuantitatiboan baldintzak definitu zituen 2014an. Ondorioz, Hautetsien Kontseiluak instituzio guztiei euskararen aldeko paktu bat adostea proposatu zien elkarrekin jokatzeko hiru lehentasuni begira:

- Frantziako Hezkunde Nazionalarekin negoziaketa burutzeta, irakaskuntza eskaintza garatzeko.
- Helduen formakuntza profesionala diruztatzeko fondo komuna sortzea.
- EEPren urteko aurrekontua bikoiztea.

Urte eta erdi berantago, euskalgintzako herri mugimenduek lobby lan azkarra eginik ere, argi da helburua ez dela lortuko. Emaidza horietan buruzagi politiko bakoitzaren ardurak eta erantzukizunak ukatu gabe, huts egite horrek agerian uzten du Iparraldeko instituzio baten eskasia. Alabaina, politika emankorrak zutik ezartzeko arduradun politikoen borondatea ezinbesteko izanik ere, haren hezurmami-tzeko tresna instituzionalik gabe ez da nahikoa. Tresna hori ukan gabe, nekez bidera daiteke hizkuntza politikak behar duen oldar berria. Nekez konbentzitu eta aurrera erakarriko dira hizkuntza politikan esku-hartze ekonomikoa duten gainerako instituzio mailak, Estatu-

Heldu den udaberrian Iparraldeko herriko kontseiluen bozketaren ondotik sortu daitekeen herri elkargo bakarrak mirakulurik eginen duenik nehork ez du uste

tik departamendura. Nekez sortuko da Hezkunde Nazionalarekin behar diren akordioak lotzeko indar harreman nahikoa. Nekez orokortuko da euskararen irakaskuntza normaltasun osoz, haur guztiei 10 urte barne eskaini beharko dieguna. Hots, Iparraldean euskararen egoerari buru egiteko hizkuntza politikak lurraldeko eragile instituzional indartsua behar du.

Heldu den udaberrian Iparraldeko herriko kontseiluen bozketaren ondotik sortu daitekeen Herri Elkargo bakarrak mirakulurik eginen duenik nehork ez du uste. Berez mugatua izanen baita, eskumen, aurrekontu eta funtzionamenduaren aldetik. Estatuko austeritate politikak beste erakunde publikoak bezala jasan beharko baititu. Horren giderrak hartuko dituzten buruzagiak ez baitira, behar bada, aski konbentzituak eta ausartak izanen, behar diren neurriak hartzeko edota lehentasunak definitzeko momentuan eztabaida politiko biziak izanen baitira. Luza daiteke ahulezien zerrenda, baina segur dena da lehen aldikoz, Iparraldearen izenean mintzatu eta aritzeko eragile politiko instituzionala izanen dela. Ondorioz, hizkuntza alorrean definituak diren lehentasunak eta adostuak diren bide orriak gauzatzeko orain baino aukera askoz gehiago izanen dira. ■

gizak ez baitira, behar bada, aski konbentzituak eta ausartak izanen, behar diren neurriak hartzeko edota lehentasunak definitzeko momentuan eztabaida politiko biziak izanen baitira. Luza daiteke ahulezien zerrenda, baina segur dena da lehen aldikoz, Iparraldearen izenean mintzatu eta aritzeko eragile politiko instituzionala izanen dela. Ondorioz, hizkuntza alorrean definituak diren lehentasunak eta adostuak diren bide orriak gauzatzeko orain baino aukera askoz gehiago izanen dira. ■

DANI BLANCO



Itxaro Borda



IDAZLEA

Oroituz

URRIA ERDITSUTAN eman zuen azken hatsa. Adiskideak ginen, aspalditik. Eritasun tzar batek beste mundura eramane zuen, garaizegi: ehunka kidek –Agergarai-Olaso, Berzaitz eta Bedaxagar sendiez gain, Euskal Herrian zehar askok– dolu dute gaur Dominika Agergarai ez dutelako gehiago Zuberoako xendretan gurutzatuko.

Badira jendeak, horrela, ez direnak sekula zinkurinaz eta auhenez entzuten. Umoreari eta arraileriarri esker gainditzen dituzte zailtasunak eta saihetsean dauzkatenei are urrunago tematzeko kemena txertatzen diete. Alde horretatik Dominikak ez zuen paretik: zirtot-

ak, bertsoak, gogoeta sakonak, kanta zaharrak eta berriak, azterketak, hitzak beraien zabalerarik eskuzabalenean erabiltzen zituen, biolentziari halatan bidea zerratuz.

Ingurua pozez josiaz, Zuberoako laborantza eta kultura alorrean sartu zuen atzamarra: Habia elkarteko lehendakari izan zen, Urdiñarbeko Musika Egunaren sortzaile, Muskildiko pastoraletan arizale, maskaradetan buhameen prediku idazle eta hondar urteotan, Azkorri ardi-gazta kooperatibaren eraikitzaile.

Saltsa zapoetsu guztietako zalia zen. Umezurtz utzi gaitu. ■



Nora Barroso

◆ ARGIAKO BLOGARIA

Gure basoak: izenak, izanak eta borrokak

BASO BAT bilatzen genuen, baina ez genuen galtzeko basorik nahi, elkar aurkitzeko balioko ligukeena baikiz; bai gure buruak, bai historiak eta bai memoriak zapalgailu bezala pasatako emakumeenak aurkitzeko.

Historia eta memoria inperioen, gerren eta garaien handien ikuspuntutik errezeitatuak izan dira, bizitzari ekarpenik eman ez, baina haien poltsikoak ederki betetzen dituen kantua. Ez dugu memoria hori nahi; boteretsuena, erregeena. Bizitza, liburu eta aldizkari handietan ateratzen ez dena, bestelakoa da, eta horretaz asko dakigu emakumeok.

Baso horri Zozaiako Mari izena jarri diogu, 1610. urtean Logroñon gauzatutako prozesuan eraila, ziu- rrenik artaldetik bereizten zelako, sotanei ez jarraitzeagatik. Maria Txokote izena ere izan zezakeen, eskapo egiteko aukera izan zuen Pasaiaiko sorgina. Edo Encarnación Nieto eta Francisca Martín enpresako batzordean parte hartu zuten lehen emakumeetakoak eta emakume gehiengoaz osaturiko 1920. urteko grebaren batzordean parte hartu zutenak; gizonen neurriera egindako eremuetan haien tokia izateko borrokatu zuten emakume sindikalistak.

Ez dugu memoria hori nahi; boteretsuena, erregeena... Bizitza, liburu eta aldizkari handietan ateratzen ez dena, bestelakoa da, eta horretaz asko dakigu emakumeok

Basoari Agustina Otaola jar geniezaiokeen edo 1965. urtean profesionalak izan ziren inguruko erraketista batena. Hor daude ere Sara Carracelas eta futbol zelaietan arima uzten duten emakumeak; Ibaika, Pasaia eta Oiartzungo arraunlariak; eskualdean esku-baloiak eman dituen txapeldunak; eta bertsoaritzan Joxepa Antonia Aranbarri edo Oiartzungo Lukasia Elicege adibidez, gizonen eremutan parte-hartzeagatik bidesari handia ordaindu behar izan zutenak, “azalean dagoen baina azalarazten uzten ez duten askatasunaren defentsa”. Izan ere, haien neurriera egindako iraultzen kontaktak gizonak idatziak baitira.

Aipamen berezia Mertxe Lopez Cotarelori eta Pilar Valles Vicuñari frankisten fronteak aurrera egin ez zezan borrokatzeagatik, 17 urterekin fusilatutako izan zirenak. Inguru hartatik ere Kasilda *La miliciana* zegoen; sindikalista, feminista eta milizianoa bera, gizonetako kideak atzealdean jasotzea erabaki zutenean, berak frontearen jarraitzea hautatu zuena. Bigarren Mundu Gerran *Red Comet*eko emakumeak daude.

Ezin ahaztu gure komandoattua, eta tortura jasan duten emakumeak, gure herrian borrokatu eta errepresioaz asko dakigula. Emakume feministen sareko kideak abortatu nahi zuten emakumeak Lapurdi, Zuberoa edo Nafarroa Behereko lurraldera pasatzen laguntzen zutenak. Baina Zozaiako Mari basoa deitu diogu, sutan bukatu zuten eta gu bezala desobedientek ziren asaben omenez. ■

* Nora Barrosok sinatua. Oarsoaldeko Emakume Mundu Martxako kideek idatzia.



GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2015



www.bertsotzale.eus

ESKORIATZA Azaroak 8 Final laurdenak

Kiroldegia, 17:30

Beñat Lizaso Alberdi	
Manu Goigogana Bengoetxea	
Mikel Artola Izagirre	
Oihana Iguaran Barandiaran	
Unai Agirre Goia	
Unai Mendizabal Jauregi	

Sarrerak www.bertsosarrerak.eus webgunean edo egun berean leihatlan.

Laguntzailea: 

ERDIKO KAIERA

JAZAR SORMEN GUNEA

Egunero sortzen delako

Irudikatu 1.700 metro koadro artea eta kulturaren bueltako proiektuen zerbitzura. Irudikatu hutsik zegoen eraikin bat dozenaka sortzaileren esku. Donostiako Tabakalera burura etorri bazaizu, ez zoaz bide onetik. Iruñean, askoz ere zalaparta eta baliabide gutxiagorekin, bi urteko ibilbidea egin du jada Jazar sormen gunek. Erakundeen esku hartzerik gabe; autogestioa eta asanblearismoa oinarri.

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |

Orekari estudioko kideak Jazarren lanean: Iruñeko espazio autogestionatuak eman die elkarrekin lan egiteko aukera.



GERO ETA UGARIAGOAK DIRA co-working, sormen laborategi, hub eta antzeko izenekin bataiatutako lekuak. Haietako askok sormenaren bueltako proiektuak haizatzeko boka-zioa dute, bai; baina askotan elkartzen dira horren politak ez diren beste hitz batzuekin: start-upak, ekintzailtza, mezenasgoa, instituzionalizazioa, bertikaltasuna...

Iruñeko sortzaile multzo handi batek ordea, enpresetan baino herri mugimenduetan ohikoagoa den egiteko moduari heldu dio bere beharrei erantzuteko: antolakuntza eta autogestioaren bideari. Horren fruitu da bi urteko lanarekin Jaso ikastola izandako erakinean garatu duten proiektua, Jazar sormen gunea.

Jasotzeko, lehenengo erein

“Aspalditik sumatzen zen Iruñean bazegoela artistek eta sortzaileek lan egin ahal izateko leku baten beharra, espazio fisiko baten falta”. Hala aitortzen du Jazarren buru-belarri dabilen Xabier Urroz Zabalzak. Hutsune hori osatuko zuen proiektua ez zen, hala ere, instituzioen makro-planen eskutik etorri. Etxabakoitz auzoko Jaso ikastola izandakoaren paretik egunero igarotzen zen kide batek izan zuen ideia: zergatik ez diogu erabilera emango utzita dagoen espazio horri?

Bi aldiz pentsatu gabe bildu zen eraikinarren jabetza zuen guraso elkartearekin. Jatorrizko ideia azaldu, konbentzitu eta lortu zuen alokairu merkea adostea, eraikina bi urtez erabiltzearen truke. Orduan hasi zen Iruñeko eta inguruko ehunka artistari eta egileri aukeraren berri ematen.

Hasiera hori zirraraz gogoratzen du Urrozek: “Ahoz aho zabaltzearekin batera, asko hasi ginen asteroko bilertara etortzen, nahiz eta oso argi ez izan zer topatuko genuen. Tartean bazegoen etxebizitza proiektu bat buruan zuenik, baina azkenean, eta bilera askoren ondoren, sortzaileentzako eta sormenerako leku bihurtzea erabaki genuen”.

Lehenengo bilera haiek baliatu zituzten 13 urtez hauts dezente pilatzen ari zen eraikina txukuntzen hasteko. “Bertan geundenon beharrak identifikatu genituen eta hasi ginen pixkanaka auzolanean espazioak horri erantzuteko prestatzen”. Horregatik guztiagatik guraso elkarteko kideak haiekin pozik daudela dio. “Lasaitzeko motiboa ere izan gara. Utzitako eraikin batek arriskuak baditu, eta orain badaukite guk ondo zainduko dugula”.

Nola egin bideragarri?

Lehen pauso horiek pixkanaka definitu zuten gaur egun Jazarren antolaketa eredu dena.

Orekari: Jazarri esker sortu zen arkitektura estudioa

LILIA AIZKORBE, Xabi Urroz, Ioar Cabodevilla eta Itsaso Iturriozek arkitektura ikasi zuten Donostian, eta Iruñera lehenengo praktikak egitera itzultzean, ez zitzairen lan munduan aurkitu zutena gehiegi gustatu. Orduantxe ezagutu zuten Jazar, eta karrera amaierako proiektua aurrera eramateko leku aproposa izan zitekeela otu zitzairen. Bide batez, lizentzia eskuratu ahal izateko, eraikina egokitzeko proiektua hasi ziren sortzen. Horixe izan zen batera egin zuten lehenengo lana, eta lan horrekin hasitako dinamikatik etorri zen Orekari izendatu duten arkitektura estudioa. Beste lanak utzi, eta estilo finez atondu duten 60 metro karratuko txokoa hartu zuten Jazarren.

Beste lekuetan pentsa ezinak liratekeen sinergiak Jazarren sortzen direla diote, lan eta proiektu asko etorri zaizkiela horri esker. “Asko laguntzen diogu elkarri hemen gaudenok, eta gainera, proiektu komunaren parte ere sentitzen gara”.

Tropi Mukiak: “Inor ez besteen gaineratik”

30 METRO KARRATUKO txokoaren alokairua ordaintzen dutenetako bat da *Tropi*. Han darama aurrera serigrafia eta ilustrazioa uztartzen dituen Mukiak proiektua. Mundu horretan barneratu nahi zuela erabakita zuen Jazarren gertatzen ari zenaren berri izan zuenerako. “Lehenengo urteurreneko festa hurbildu nintzen jakin-minez, eta izugarri gustatu zitzaidan bertan aurkitu nuena, Mundu berria ireki zen nire begien aurrean”.



Asteroko asanbladetan hartzen du parte, baita jantokiko lan-taldean ere. Autogestioaren oinarrian komunitatea dagoela dio, eta sormen gunean norberak asko jasotzeko aukera duen arren, eman ere egin behar dela. Baina hori bai: “Hemen ez dago inor besteen gaineratik. Ez du axola hasieratik hemen zauden edo geroago etorri zinen; lan egiteko prest bazaude, taldeko kidea zara, beste guztiak bezala”.

Mukiak proiektuak Jazar gabe bide zailagoa izango zuela uste du. Batetik, antzeko kezka eta egoera bizi duten pertsona askorekin ideiak konpartitzeko aukera ematen diolako, eta bestetik, beste edozein lekutan baino inbertsio txikiagoa egin behar izan duelako. 75 euro hilean ordaintzen ditu denera, 25 euroko bazkide kuota, eta 50 txokoaren truke. “Baina garrantzitsua honetan jartzeko indarra eman didan giroa topatzea izan da”.



Etxabakoitzen, Jaso ikastola izandakoan garatu dute Jazar sormen gunea.

Espazioaren antolaketari dagokionez, beheko bi solairuak denek erabiltzeko espazio komuna dira. Tartean badaude auzolanean eta zerotik atondu dituzten jantokia, plaza handi baten tamainako skate parkea, entsegu aretoak, eskalatzeko txokoa ere baduen gimnasioa, eszenatokia, sukaldea, liburutegia, baratzea... Baita, gehiago edo gutxiago, gehienek erabiltzen dituzten lan-gelak ere: estanpazio eta serigrafia tailerra, brikolaje tailerra, argazki estudioa...

Baliabide horiek nahi beste erabili ahal izateko, Jazarreko bazkide egin beharra dago, 25 euroko hileroko kuota ordainduz. Urrozekin eta beste bi kiderekin batera Jazarren arkitektura estudioa sortu duen Ioar Cabodevillaren arabera, mesedegarria izan da erabaki hori: "Horrela tailerrak erabiltzen dituzten guztiek asanbladetan parte hartu eta proiektuan sinestea lortzen dugu, arduratsuagoak izatea". Hala ere, Jazarretik kanpoko makina bat kolektibori uzten diote maiz behar duen oro erabiltzen.

Aldizkako lanak egiteko nahikoa baliabide badaude espazio komunetan, baina hala nahi dutenentzat, txoko propio bat alokatu eta proiektua han garatzeko aukera ere badago. Bigarren, hirugarren eta laugarren pisuan dauden ikasgela izandako 30 eta 60 metro karratuko gelak prestatu dituzte horretarako. Txikiengatik hilean 50 euro ordaintzen

Jantokia, skate parkea, entsegu aretoak, eszenatokia, liburutegia, baratzea... Mota askotako espazioak atondu dituzte Iruñeko sormen gune autogestionatuan

dute, eta 100 handiagoen truke. Diru horrekin eraikinaren alokairua eta gastu komunak ordaintzen dituzte.

Besteak beste, arkitektoak, txalapartariak, garagardo egileak eta argazkilariak egunerokoa konpartitzen jarri ditu eskaintza horrek. Gaur gaurkoz txoko guztiak hartuta daude, eta itxaronzerrenda ere bada.

Autogestioa: eguneroko erronka

Espazioaren handitasunaz gain, erabakiak hartu eta proiektua norabidetzeko moduak bereizen du Jazar. Duela bi urte arte apenas elkar ezagutzen zuten dozenaka lagunek asanblada bidez ematen diote forma etengabe garatzen ari den ideiri. Bi asteroko formula probatu ostean, asteroko asanblada egiten dute orain. Horrez gain, eguneroko beharrei erantzuteko lan-taldeak ere badituzte: administrazioaz arduratzen dena edo komunika-

zio lan-taldea, adibidez. Tailer komun bakoitzak ere bere lan-taldea du.

Asanblada gisa funtzionatzeak etengabeko moldaketa eskatzen duela argi du Cabodevillak. Taldea oso anitza dela dio, bai adinari, bai jatorriari dagokionez ere. "Badaude gaztetxeetan urte luzez aritu direnak, eta beste batzuk hemen izan direnak lehenengo aldiz asanblada baten parte.

Batzen gaituena sormena eta autogestioan sinestea da".

Zentzu horretan, aitortzen du beti ez dela erraza aniztasun hori kudeatu eta erabakiak hartzea. Bi edo hiru aldiz aldatu behar izan dute garbiketara txandak antolatzeko eredua, eta badaude kuota ordaintzerik ez dutela-eta zorra pilatu duten bazkideak. Baina zailtasun horiei aurre egiteko ahalegina egiten dute, asanbladen bidez, enpatia landuz eta elkar lagunduz. "Interesgarria da sormena

ardatz duten aktibitateetan aritu arren beste pertsona batzuek oso ikuspegi desberdina dutela ikustea, eta haiena ere entzuten jakitea". Gauza bat da ziurra: beste edozeinek bezala gatazkak eta une loriatsuak dituen elkarbizitza horretan sortu diren harremanek eta sareek askoren proiektuak indartu eta berriak sorrarazi ditu. Eta jarraituko dutela, autogestioak ematen dien askatasuna baliatuta, helburu eta erronka berriei aurre egiten. ■

Ozaki Gardenak

Aurri gara

AZAROAK 5, Kafe Antzokia **BILBO** 21:30ean

AZAROAK 12, Jimmy Jazz **GASTEIZ** 21:00etan

AZAROAK 20, Jaizale Taberna **ARRASATE** (Jon Basaguren bakarka)

AZAROAK 27, Victoria Eugenia Klub **DONOSTIA** 20:00etan

ABENDUAK 6, Ahotsenea **DURANGO** 19:00etan

URTARRILAK 9, Subsuelo **IRUÑEA**



SOIHUKA

Portuetxe 88 bis, Donostia
20018 Gipuzkoa • tel. 943 310 267
musika@elkar.eus • www.elkargitaletxea.eus

Herritarren bizipenak argitara ateratzeko crowdfundinga

Donbass: Gerra Europaren bihotzean dokumentala kaleratzeko diru bilketa martxan jarri du ARGIAK Karena.eu plataforman. Ibai Trebiño eta Mikel Arregi kazetariak Ukraina, Krimea eta Donbassen jaso dituzten lehen eskuko testigantzetan oinarrituta dago lana.

| AXIER LOPEZ |



Donbasseko gatazkaren ikur bihurtu da Donetskeko aireportua kontrolpean izateko borroka.

“DONBASSEKO gerra-frontera joateko asmoa daukagu Mendebaldeko masa komunikabide gehienek erakusten ez duten beste aldeari –ezkututzen duten besteari– ahotsa emateko”. Oso argia izan zen Trebiñok eta Arregiak ARGIAko lantaldeari egindako proposamena. Gogoz heldu zioten abenturari eta horren emaitza dira argitaratu ditugun erreportajeak, argazki-bildumak, bideoak eta iritzi artikulugariak. Ikuspegi kritikoz jorratutako lanak,

Europako kazetari gutxiak jaso duten lehen eskuko testigantzez lagunduta.

Lan oparo horren emaitza biribiltzera dator *Donbass: Gerra Europaren bihotzean* dokumentala. Euskal Herriko jendartearen gehiengoarentzat oraindik oso ezezaguna den gerra baten testuingurua eta ondorioak azaldu nahi dituzte ARGIAk sustatutako dokumentalaren bidez. Dozenaka orduko grabazioak editatzeak, euskaraz gain beste hainbat



Ibai Trebiño

33 urteko gasteiztarra. ARGIAko kolaboratzailea. 2014an Donbassera lehen aldiz bidaiatu zuenetik, hiru aldiz izan da gatazka gunean. Denbora tarte horretan gatazka horri buruzko erreferente bihurtu da. Pasa den maiatzean Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen batzordean Donbassi buruzko hitzaldia ematera gonbidatu zuten.

hizkuntzataraz itzultzeak (ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz, italieraz...) lanaren produktioaren kostuak... lan handia dago dokumentalaren atzean. Beraz, lana baldintza egokietan egin ahal izateko eta egileek –freelance gisa– egin duten lanak ordainsari duina merezi duelako, diru-ekarpenak jasotzeko crowdfundinga abiatu dugu.

Jatorrizko dokumentalaren bertsioa euskaraz izango da, gaiak Euskal Herritik kanpo duen pisua ikusita, gaztelaniazko eta ingelesezko bertsioak ere gehitu nahi dizkiogu. Crowdfundingaren bidez lortuko dugun diruaren arabera beste hizkuntza batzuetara itzuliko dugu (katalanera, frantsesera...).

Euskal Herrian sortua, euskaraz pentsatua eta baliabide gutxiagorekin eginik ere, munduko geopolitikaren lehen lerroko gai bati heldu nahi diogu. Jakitun garelako, komunikabide handietako jabeen interes ekonomikoek behartuta, ezkututzen den ikuspegiaren zabalpena hedabide independenteen esku baino ez dagoela.

“Donetskeko zenbait auzo erabat suntsituta daude. Zutik iraun duen ia ezer ez da. Asko



Mikel Arregi

29 urteko arrasatearra kazetaritzan dabil aspalditik. Lehen pausoak irratian eman zituen Radio Euskadi, Euskadi Irratia eta Onda Vascan esatari moduan. Arrasateko Mondraberrri egunkari digitalean aritu da kazetari eta kamerari. Egun EITBko berriemailea da Madrilan.

hunkitu ninduen sotoetan sartuta bizi zirenen bizimoduak. Zenbait familiak hilabeteak daramatza aire erasoen aurkako babeslekueetatik atera gabe, oso egoera tamalgarrian bizirauten. Hori bezalako gerraren eragin zuzenak jaso ditugu”, dio Mikel Arregik.

2014ko otsailean Kieven izandako gertaren ondotik aldaketa politiko sakona bizi izan du Ukrainak. Maidan izenarekin ezagun egin ziren protesten ondoren, estatu kolpea eman zuten. Ukrainako egoera politiko, ekonomiko eta sozialean aldaketa sakonak gertatu dira harrezkero.

Apirilean, Kieveko agintari berriak onartzen ez zituzten Luhansk eta Donetskeko herritarrak altxatu egin ziren, eta erantzun moduan, Ukrainako presidente Poroxenkok Donbasseko Gerra abiatu zuen. Europan aspaldi ikusi gabeko anabasa humanitarioari hasiera eman zion gerrak –1.500.000 errefuxiatu eragin ditu– eta hara joatea erabaki zuten dokumentala egitera; Krimean eta Donbassen bizitakoa, entzundakoa eta ikusitakoa dokumentu historiko bezala jasota gera dadin. ■

Ekarpena egiteko aukerak

10, 15 eta 20 euroko laguntzak sortu ditugu, trukean izena kredituetan, dokumentala DVD formatuan eta ARGIAren kamiseta jasoko dute ekarpena egiten dutenek. 50 euroko ekarpen berezia ere prestatu dugu, dokumentalaren emanaldia eta egileekin solasaldia antolatuko genuke ordainetan. Ondorengo helbidean dago ekarpena emateko aukera: www.karena.eu/proiektua/donbass-gerra-europaren-bihotzean

Literatura

Orube abandonatuak
Garazi Kamio

Elkar, 2014



Etzanarazitako argazkiak

MARIO, MIREN ETA MAIDER dira Garazi Kamioren bigarren lanaren protagonistak eta eleberri honetako ardatzak. Hiru pertsonaia, hiru esperientzia, hiru belaunaldi. Baina aldi berean, partekatutako hainbat kontu dituzte. Hirurek izan dute bere bizitzan norabide aldaketa bortitza. Horren ondorioz haien ingurukoak urrun dituzte. Hori dela eta, higuina, beldurra eta antsietatea ohiko eta arrunt bilakatu zaie, eztarrian gora edo bizkarrezurretik gora agertzen zaizkie, nahi baino gehiagotan.

Oso baliabide urri eta xumeekin eraiki du Kamiok nobela hau, hala ere, honen efektua handia da, irakurri ostean zurekin geratzen den horietakoa. Biluzia eta zuzena da bere prosa, pertsonaiek, egoerek eta irudiek hartzen dute pisua eta esangura ematen diote narrazioari. Mario, Miren eta Maiderren istorioak elkarrekin tartekatuta kontatuko dizkigu, modu linealean eta artifiziorik gabe. Haien pasio eta gorabeheren testigu bihurtuko gaitu, haien miseriaren *voyeur*, akaso haien patuaren erantzule ere bai.

Bazterretara begira jartzen gaitu egileak lan honetan, eta honen harira, duela gutxi zendu zen Eduardo Galeanoren *Los nadies* poema etorri zaigu burura: "...historia unibertsalean agertzen ez direnak, baizik eta herri aldizkarietako gertakarien atalean..." direlako. *Outsiderrak*, *loserrak*, subalternoak

dira zentzora ekarriak. Mendebaldeko kultura garaikidearen hiru arotako adibideak ekarri dizkigu, "jarraitu beharreko bidetik" desbideratu direnak agerian jarritz.

Egilearen lehen lanarekin, *Beste norbaiten zapatak* ipuin bildumarekin, joan etorriak ditu Kamioren bigarren lan honek: egunerokotasunaren iluntasun eta isiltasunei erreparatzen die, hausturak jasandako pertsonak ditugu orriotan, horri buelta emango dioten zain gaude irakurri bitartean, haien ezintasun eta oztopoak banan-banan ezagutuz. Baina hemengo tonua motelagoa da, goibelagoa, agertzen diren irribarreak antzeztuak baitira, bestelakorik ez dago.

Inoiz sentitu duzue kalera irten eta "inor eta inork ikusterik nahi" ez izatea? Zuen burua ispiluan ikusteko erreparorik? Zuen bizitza orube abandonatu bihurtzen ari den susmorik? Hori da liburu honek erakutsi diguna. Hasierako Joseba Sarriandiaren aipuak islatzen du testuaren mamia: "*Exilio é se esconder num armário con medo de que alguém o abra e com medo de que nebum o abra*". Finean, "etzanarazitako argazkiei" buelta emango diezue hor nor dagoen eta zergatik dagoen ezkutuan jakiteko, liburu hau eskuartean hartzen baduzue. ■

Amaia Alvarez Uria



administrazioa • publizitatea
liburuak • enpresa

Tel.: 943 515 346 · www.lete.net · lete@lete.net



Moyua
hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako

Otadui Gotzaina kalea, 27 · 20560 Oñati (Gipuzkoa)

☎ 943 783 447 / 617 442 466

mmoyua@telefonica.net · www.tanatorio-guipuzcoa.com



Sua zaintzen

Glaukoma ta Bad Sound

Bonberenea Ekintzak, 2015

Mezuak eta errimak batzen

GLAUKOMA ETA BAD SOUND SYSTEM taldeak lagunak dira, anaiak. Bien artean bi abesti sortu dituzte eta bi abesti horiekin osatu dute *Sua zaintzen* lana. 10 hazbeteko binilozko disko bat da (alde bakoitzean kantu bat), baina bi kantuak CD batera ere bildu dituzte. Beraz, *Sua zaintzen* lana eskuratzen duenak biniloarekin batera CDa eskuratuko du.

Glaukoma taldeko kideak Tolosakoak, Donostia-koak eta Irungoak dira. Asier Arandia (baxua) eta Juantxo Arakama (ahotsa) tolosarrak, Jokin Albisua eta Iker Pando gitarra jotzaileak donostiarrak, eta Pablo Rubio (bateria) irundarra. Tolosan entseatzen dute. Selektah Stepi eta Moro, Bad Sound taldeko bi kideak berriz, Irungoak dira.

Musika egiteko garaian bi taldeen ikusmoldeak ez dira berdinak, baina bai osagarriak, diskoko bi abestietan antzeman daitekeenez. Emaizta ederra da: Glaukomaren eta Bad Sound System taldeen ukituez landutako eta burututako bi reggae-hip hop-dancehall abesti. Bi taldeak elkarrekin lan egiten ederki moldatzen direla nabarmena da, eta oso ongi pasatzen dutela. Giro eder horren ispilua dira diskoko bi kantuak. Elkarlanean aritu dira, indarrak batu dituzte eta elkar aberastu dute.

“Urtetako harremana daukagu eta bi taldeen artean kantu pare bat grabatzea erabaki genuen”, Juantxo Arakamaren hitzetan. “Esperimentatzeko gogoia geneukan, bi taldeak batu eta ea zer ateratzen den ikustea. Oso gustura egindako lana izan da, eskuz, eta gustu eta mimo handiz. Guretzat gutzizia moduko bat izan da, gozoki bat”.

ekoizpena ederki egina dago, eta doinua indartsua da. Erritmoez eta melodiek berehala harrapatzen zaituzte eta gorputza oharkabean mugitzen hasten zaizu. Moldaketak ederki eta neurrian eginak daude, eta hitzak eta errimak oso ongi landuak daude.

Batak bestetik abestiaren oinarria Glaukomak egin du eta *Bizitzaren antzerkia* abestiarena Bad Soundek. Lehen kantuan bi taldeek nola elkar ezagutu zuten kontatzen dute: “Bi gera bat, bata besteari lotuta erabat; zutik biak bat!; bihotzez elkarri laguntzen, errimak errima sentitzen, mezu ta errima batzen, hotzai




beroa jartzen; bakarrik sentitzen diren gizon ta emakumeentzat reggaea!”. Bigarren kantua kritikoagoa da, egungo egoeraren inguruan hitz egiten du: “Argia iparririk gabeko gazte onei ta sua egia zor diguzuten hoiei; zapaltzen gaituztenak anker portatzen dira; zenbat negar bizitzaren antzerkian?; askatu neska, mutil, gizon ta emakume guztik!”.

Lana aurtengo udaberrian osatu dute. *Batak bestetik* kantuarien grabazioa eta nahasketak Karlos Osinagak egin ditu Bonberenean. *Bizitzaren antzerkia* kantuarien grabazioa Selektah Stepi egin du Gua estudioan, Irungo Mosku auzoan, eta nahasketak Maiketek Mik estudioan, Beran. Bi kantuen masterizazioa Karlos Osinagak egin du Bonberenean, diseinuaz Punker (Rebel Sounds) arduratu da eta maketazioaz Imanol Urizar. Grabazio saioetan Glaukoma eta Bad Sound taldeetako kideez gain Aitzol Moneo (tronboia) eta Ander Altuna (tronpeta) aritu dira.

Sua zaintzen lana aurkezteko bi taldeek elkarrekin hainbat emanaldi egingo dituzte: Arrasateko gazte-txean urriaren 29an, Gasteizko Jimmy Jazz aretoan urriaren 30ean, Tolosako Bonberenea etxean urriaren 31n, Bilboko Stage Live aretoan azaroaren 13an eta Iruñeko Akelarre aretoan azaroaren 14an. *Batak bestetik* eta *Bizitzaren antzerkia* kantuak ez ezik, Glaukoma eta Bad Sound System taldeen hainbat kantu elkarrekin joko dituzte. Emanaldi bereziak izango dira, dudarik gabe. ■

Joxi Ubeda

Hitz gezidunak

XUME, UMIL BERANDU	PERTSONAIAREN IZENA ARRISKU	EZ HOTZ EZ BERO	ZAKUR EUSKAL ARTISTEN ELKARTEA	ATZIZKI TXIKIGARRIA INFUSIO BIZIGARRIA	AURRIZKI: KONTRAKOTASUNA ESTOIZISMOAREN ZALE	ERRETEEN, UBIDE TENTALDI		
		POXPOLINA HAUR HIZKERAN, MUSUA						
HAITZULOA BANGLADESHEKO HIZKUNTZA				HELTZEN, ORATZEN ROENTGEN				
					LIKIDOAK EDUKITZEKO ONTZIA ERASO			
EZEN	LETRA GREKOA MONETA BATZUEN EHUNENA					TALIOA PILOTAN ARITZEKO TRESNA		
		DEUS ERE EZ				LETRA IZENA PERTSONAIAREN ABIZENA		AXOLA, KEZKA
ERDI HITZ-ELKARTETAN EGOKI								
	BAT ERRO-MATAR ERAZ FRUITU MOTA						LEIZE, AMILDEGI ZENDU	
NONDAR ATZIZKIA SARRAILAK EGITEN DITUENA		ZINEMA BEGIRADA (ALDERANTZIZ)	DAGO SOBERA, GEHEGI	HIDROGENOA HARAGIAREN MINTZA	EGIPTOKO JAINKOA SINDIKATU ABERTZALEA			
						SEGUNDOA GADOLINIOA		
SORLEKUA IRAUTEKO PRESTATURIKO JANARIA				LURRAREN SATELITE BYTE				
					BADAGO			

Sudoku

Bete gelaxkak 1etik 9rako zenbakiak idatziz, zutabe, lerro eta 3x3ko koadro bakoitzean errepikatu gabe.

Zaila

			6		1			
9				5		8		
3	6		7	4				
			4					1
7	1					4	5	
2				7				
			3	8		7	6	
	9		2					8
		3		5				

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.

- 1.- Jantziaren eta bularraren arteko hutsune.
- 2.- Nahasteak.
- 3.- Emakumezko izena.
- 4.- Baranda babesgarri.
- 5.- Jateko haragia.

Soluzioak

8	7	3	6	9	8	7	3	4	1	2	
4	6	6	9	8	8	4	2	7	1	3	5
1	5	2	3	4	8	9	7	6			
2	4	6	5	1	7	8	6	3			
7	1	6	8	9	3	2	4	5			
5	3	8	4	2	6	7	9	1			
3	6	1	7	8	4	5	2	9			
9	2	7	1	3	5	6	8	4			
4	8	5	9	6	2	1	3	7			

- 5x5:
1.- Kolko
2.- Oreak
3.- Letre
4.- Karel
5.- Okela

K	O	N	O	K						
B	A	I	O	N	A					
S	A	R	R	A	I	L	A	G	I	L
T	A	R	Z	H	D					
O	N	I	O	S						
A	Z	E	K	I						
E	Z	E	I	X	A					
T	L	J	O							
B	E	N	G	A	L	E	R	A		
H	A	R	P	E	A					
B	E	L	U	P	E	R	T	X	E	N
K	A	T	O	E	J					

Zergatik dut min barrabiletan?

BARRABIL BAT bestea baino behera-geago kokatua egotea ez da inola ere kezkatzeko arrazoia, batzuk pentsatzen duten bezala, ezta alde bateko barrabilaren eta beste aldekoaren tamainak diferentek izatea ere, kasu gutxi batzuetan izan ezik.

“Barrabilak fetuaren sabel barruan sortzen dira, eta pixkanaka beherantz jaitsiz doaz, jaio aurretik barrabil-zorroan kokatzeraino. Litekeena da bietatik bat bestea baino gehixeago jaitea, baina eskrotoaren barruan dauden bitartean ez dago patologiarik”. Madrilgo Gregorio Marañón Ospitaleko Urologia Zerbitzuberu Carlos Hernándezen hitzak dira. Behin edo behin, barrabiletakoren bat edo biak ez dira zorreraino jaisten –kriptorkidia esaten zaio horri, “ezkutuko barrabila” esan nahi du– eta orduan bai, barrabil hori jaitea lortu beharra dago nola edo hala, kasurik gehienetan ebakuntza kirurgiko baten bidez, batez ere bi urtetik gorako mutikoen kasuan.

Tamainari dagokionez, ez dute aparteko galderarik izaten urologia kontsultetan, bolumenaren izandako handitzea edo txikitzea oso-oso nabarmena ez bada behintzat. “Gizon gazteek egiten dizkigute kontsultak gai horren inguruan, barrabiletako minbizia usuagoa baita horien artean, batez ere molestiaren bat edo koskorren bat edo aldaketaren bat sumatzen badute”, Hernándezen esanetan.

Bere esperientzia profesionalean oinarrituz, Hernándezek dio gizonetzkoak ez direla asko kezkatzen barrabilen tamaina eta itxuragatik, eta jarrera desberdinak izaten direla adinaren arabera. “Paziente gazteak



gehiago kezkatzen dira kontu horiez, ez ordea urte gehiago dituztenak”.

Traumatismoen erdia, kirolean

Traumatismoak, inflamazioak, tumoreak, barikozeleak (barizeak) edo likido-pilaketak (hidrozelea) dira barrabiletako patologiarik usuenak. Traumatismoen %50 kirola egiten den bitartean gertatzen dira eta %9 motor edo auto-istripuetan.

Patologiaren arabera sintomak desberdinak dira. Barikozeleek min arina eragin dezakete, baina min zorrotzik ez. Hanturak –orkitisa esaten zaio– tamaina handia, min bortitza eta batzuetan sukarra ere ekar ditzake. Barrabiletako minbi-ziak, berriz, ez du minik eragiten; tamaina handituak eta ingurua gogortzeak emango digute minbi-ziak susmatzeko arrazoia.

Zer egin min gogorren bat edo sintoma arraroren bat agertuz gero? Bat-bateko min gogorra hantura edo infekzio batek sortua izan daiteke, edo barrabiletako tortsio edo bihur-

dura batek bestela. Ez bada denbora laburrean baretzen edo desagertzen, larrialdi zerbitzura joan behar da, behar bezala diagnostikatzeko. Izan ere, barrabiletako tortsio bat ez bada aurreneko sei orduetan diagnostikatu eta konpontzen, barrabila galtzeko arriskua dago, organora odolik ez baita iristen, eta lesioak atzerazinak izatera irits baitaitezke.

Ez utzi medikuarengana joateari lotsagatik

Laburbilduz, espezialista batengana joatea komeni da beti, molestia horiek, tamainan edo sendotasunean barrabiletan gertatutako aldaketa horiek aztertu eta kasuaren garrantzia baloratu dezan. Ez da komeni sintoma horiek gutxietsi eta, lotsa edo ezjakintasunagatik, geroko luzamenduetan ibiltzea. Mina, maiz izan arren, ez bada handia, edota barrabilak tamainaz handituta egonik ere minik edo gogortasun berezirik ez badago, espezialistaren balorazioa gerorako utz daiteke. ■

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



www.iametza.com
T.943 37 67 16

Alemania izan edo ez

ZIABELAR HORIAK (*Galium verum*) adina kumarina edo gehiago du bere ahizpa zia-belar usaindunak (*Galium odoratum*). “Kumarina” izena gai hori erruz duen tonka zuhaitzetik datorkio, *Dipteryx odorata*. Zuhaitz horri Guyanako tupi kultura *kumaru* ere deitzen diote. Hortik frantsesezko *coumarou* eta kumarina bera.



BjORN TRAEGER-CC BY SA



MECREDIS-CC BY SA

Ezkerrean, zia-belar usaindunaren lorea. Eskuinean, tonka zuhaitzaren haziak.

Landare askok du kumarina, pozoia indartsua. Eden hori duen belarra jaten duenak barne odoljarioa izateko arrisku ederra. Besteak beste, gure artean bortusaiak (*Ruta graveolens*), aingeru-belar landatuak (*Angelica archangelica*), apo-belarrek (*Verbascum* spp.) eta itsabalkiek (*Melilotus* spp.) kumarina puska bat dute; gutxiago, baina larranbiloak ere badu (*Matricaria recutita*). Ez dira, jakina, gure azien-den kuttunak... Larreetan aurrera eta atzera han ibiliko da animalia belarjalea, baina hozkaka motz moztutako gainontzeko belarren artean han geratuko dira tente asko, nabarmen. Kumarinak usain gozoa izanagatik, ugari badago, landareari

mikatz ukitu polita eransten dio, eta hortzetatik babesten du. Batez ere, loreetan eta fruituetan metatzen da.

Gure ahora, ordea, ez da mikatza. Itxuraz tabakoari (*Nicotiana tabacum*) nahasten zaio, ahogozagari, dasta berezia kutsatzeko; batez ere, pipan erretzen denari. Sonatua izan zen, lehengo milurtekoaren amaiera aldera (1995), AEBetan enpresa tabakogile erraldoi bateko buru ohi batek zabaldu zuen berria: “arratoiak hiltzeko” erabiltzen zen gai bat nahasten zitzaion tabakoari, gozatzeko. Alemania izan zen erabilera hori galarazten lehena. Atzetik etorri dira besteak.

Zenbait edariri ere nahasten zaio: muztio, brandi, ardo, vodka, garagardo... AEBetan 1954az geroztik galarazita dago jakieci kumarina eranstea. Alemanian, ordea, hori onartzen dute, eta, besteak beste, *May Wine* ardo berezia zia-belar usainduna erantsiz lurrintzen dute.

Lurringintzan asko erabili izan da, gozo-gozo. Jende askorengan alergiak sortzen dituelako susmoen ondorioz, ordea, gero eta gutxiago.

Alemanian bezala, nonahi kumarina maitatua eta gorrotatua. Izan ere, pozoia dosi kontua besterik ez da... Onetik ere gehiegia kalte. ■

JAKOBA ERREKONDO



Huntzaren hostotza

HUNTZAK, *Hedera helix*, bi hosto mota ditu. Hazten ari den bitartean, hosto ebakiak, palmatuak edo esku zabalaren itxurakoak zabaltzen ditu. Beste landare batean, harkaitz batean, horma batean, zutiko batean... Beti beste zerbaiten gainean hazten da. Azpian hartzen duenaren gailurrera iritsitakoan, loratu egingo da. Loratzeko, adarretan hosto borobilak edo ia borobilak zabaltzen ditu.

Huntzak torto tontorretan irekitzen ditu loreak, haizeak hara-hona dabilkien polenak poliniza ditzan. Nektar asko dute, ordea, eta horrek erle eta bestelako intsektu jendea erakartzen du. Uda amaieran eta udazkenean, loreetan urria den sasoian, mama gozoa! ■

Gure kultura iraultzen ari den liburua

Roman Martinez Uribarren eta
Arantza Ozaeta Elortza, Aramaiotik:
**“Landaguneratu den kaletarrak
gauzen zergatien munduan ase
gura izan du jakintza”**

LANDAGUNERATU GAREN kaletarrok, mundu berri baten atarian, hainbat zailtasun laketgarriri aurre egin behar izan diegu. Landareei hitz egiten dien amona baten faltan, aro egokia denean zopizartzen ari den aitonaaren irudiaren faltan... Idatzizko erreferentzia garbi baten premia sentitu dugu. Eta bitartean, landaguneratu den kaletarrok intuizioz jokatu behar izan du sarri askotan.

Intuizioa nahikoa izan ez duen egoeretan, mahoizko fraka eta alkandora koadrodunei galdetuz egin du aurrera kaletar baserriratuak. Urliak erantzun jakin bat, sendiak prozedura bat, berendiak jokamolde bat... Horrelako inertziak jokatu izan du batzuetan, itsumustuan eta presaka bestetan. Alper-lanak sarri! Hutsegiteetatik ikasiz egin du aurrera, astiro-astiro.

Baina baratzea antolatzerakoan, ume jaio berriak amaren esnea bilatzen duen bezala, kaletarrak erantzun, prozedura edo jokamoldeen premian baino, gauzen zergatien munduan ase gura izan du jakintza.

Badaukagu esku artean, ikasteko eta gozatzeko, baratzezaintza logikoa egiteko eta egiten dugunari zergatia bilatzeko erreferentzia bikaina. Zorionak Jakoba!



Eskuratu liburua sinaturik

Bizi Baratzea ARGIAN erosiz gero, Jakoba Errekondok eskuz sinatutako hitz batzuekin jaso dezakezu liburua. Egileak herriz herri ematen dituen hitzaldietan ere (ikusirik ondoko zutabean non-noiz) baduzu sinaturik eskuratzeko aukera.

Eskaerak:

Salneurria: 23 € · Harpideentzat: 19,50 €
☎ 943 371545 · www.argaia.eus/denda · denda@argaia.eus
Zure saltokian liburua salgai jartzeko, deitu.

@bizibaratzea · Bloga: www.argaia.eus/bizi-baratzea

**AURKEZPEN
SOLASALDIAK**

herriz herri

Jakoba Errekondok baratzeari buruzko bere jakintza herritarrekin partekatuko du Euskal Herri osoan. Ondorengo hitzorduek:

**Azaroak 4
Gasteiz**

Oihaneder Euskararen Etxean,
19:00etan.

**Azaroak 5
Mendaro**

Trinidadeko baselizan, 18:30ean.

**Azaroak 8
Biarritz**

Lurrama azokan, Irato aretoan.
Ordua zehazteke.

**Azaroak 9
Zaldibia**

Kultur Etxean, 18:30ean.

**Azaroak 17
Aduna**

Udaletxe azpiko kultur aretoan,
19:00etan.

**Azaroak 18
Donostia**

Cristina Enea Fundazioaren
egoitzan, 18:00etan.

ANTOLATU ZURE HERRIAN

Jar zaitez gurekin harremanetan eta behar duzun informazioa eskuratu duzu.

sustapena@argaia.eus

☎ 943 371 545

Euskaldun bat Erromako portuaren jabe

OSTIA (ITALIA), 1497KO OTSAILAREN 20A. Erromako portuko setioa abiatu zuen Gonzalo Fernández de Córdoba “Kapitain Handia”-k, Menaldo Guerri buru zuten tropa frantziarren aurka.

Ezer gutxi dakigu ziur Menaldo Guerri buruz, izenetik bertatik hasita. Menaldo gisa ere ageri da, eta abizenaren hainbat bertsio jaso dituzte iturriek: Guerri, Guerra, Gurre edo Agirre. Haren jatorria ere ez dago garbi. Iturri gehienek bizkaitarra zela diote, gutxi batzuek nafarra, eta ziurrenik azken hori da zuzena, euskal herritar guztiei bizkaitar esateko garai hartako ohitura medio. Gascoia zela esaten duenik ere bada.

Haren lanbidea ere ez dago garbi. Batzuek karrera militarra egina zutela zalantzan jartzen dute, baina Hernán Pérez del Pulgar (1451-1531) gaztelarrak, Kapitain Handiari buruzko kronika garaikidean, Guerri kapitaina zela dio. Denborak aurrera egin ahala, ordea, historiografiak “kortsario” eta “pirata” deitu dio gehienbat, bien arteko aldea ahaztuz; hala egin zuen Manuel José Quintana (1772-1857) idazle eta politikari ilustratuak *Vidas de españoles celebres* mardulean, adibidez. Guerri kortsarioa zela esateak badu zentzua, Ostiako portua Frantziako errege Karlos VIII.aren izenean hartu baitzuen. Kontua da haren berri zeharka jaso dugula soilik, Gonzalo Fernández de Córdobaren loria puzten duten testuetatik nagusiki. Guerri haren areio izanik, iturriek nafar-bizkaitarra gutxiesteko joera dute.

Ostiako portua hartuta, Frantziako erregearen esku uzteari uko egin omen zion, goarnizioa piratez eta gaizki-



Zacarías González Velázquez (1763-1834) margolariaren lan honetan, Kapitain Handia ageri da Alexandro VI.a aita santuaren parean, alboan Menaldo Guerri belaniko eta lotuta duela.

lez gizendu omen zuen –gehienak “bizkaitarrak”–, Alexandro VI.a aita santua iraindu zuen publikoki eta, trukean eskumikua jaso zuenean, ez omen zen kezkatu. “Tiranoen maltzurkeria eta bidelapurren basakeria” biltzen omen zituen Guerri, Quintanaren hitzetan. Bihozgabe, harroputz eta harrapari ere esaten dio aipamen laburrean.

Ostiako setioa aste gutxian amaitu zen, 1497ko martxoaren 9an, espainiarren nagusitasun nabarmenak bultzatuta Guerriren armada errenditu zenean. Orduan, herritarrak bibaka zituela, Kapitain Handia Erro-

man sartu zen, Guerri atzean preso zeremala. Pulgarren kronikaren arabera, “zaldi mehe baten gainean kateatuta” zerematen; Quintanaren hitzetan “traza kaxkarreko” zaldia zen, galtzailearen irudi patetikoa areagotu nahian edo. Guerri Córdobaren gurdari lotuta zeramatela ere esan izan da, Zesarrek Vercingetorix galiarra bezala; susmagarria da kontakizunek gertaera haren geroz eta antz handiagoa izatea.

Alexandro VI.aren iritsita, Guerri bizi barkatzeko eskatu omen zion. Beste batzuen arabera, Fernández de Córdoba eskatu omen zuen Guerri ez hiltzeko. Pulgarren kronikak dio aske utzi zutela eta Frantziara joan zela; Quintanak aldiz, “bere herrialdera” itzuli zela, eta bizi osoko kartzela zigorra Xativan (Valentzia) bete zuela diote beste iturri batzuek. Azkenean, Gonzalo Fernández de Córdoba aita santuak emandako Urrezko Larrosarekin irten zen handik. Menaldo Guerri, aldiz, bizirik irten zen, eta ez da gutxi. ■

Arrastoak

Duela 2.500 urteko Siberiako zirujauak

NOVOSIBIRSK UNIBERTSITATEA



ERRUSIAKO Zientzia Akademiako zientzialariek orain dela 2.500 urteko medikuntza-tresna sorta aurkitu dute Siberian: zerra, hezurak mozteko labana, matxardak, zundak eta egungo eskalpeloen antzeko lanbesa.

Formari eta erabilerari dagokienez, pieza horiek bat datoz garai hartako Europako zirujauak erabili ohi zituzten tresnekin, zerra izan

ezik, K.a. IV. eta II. mende bitarteko horrelako lanabesik ez baita aurkitu orain arte kontinente osoan.

Pavel Volkov ikerlariaren hitzetan, zera esan nahi du horrek: “Garai horretako Siberia hegoaldeko biztanleek kirurgiaren ezagutza sofistikatua zuten, Antzinako Greziakoek eta Erromakoek zutenaren parekoa”. ■

noa

NOAUA!ren KULTURALDIA 2015

Usurbilen azaroaren 6tik 15era



azaroak 6, OSTIRALA

KONTZERTUA

"M. Urdangarin" 20:00etan Sutegin



azaroak 12, OSTEKUNA

HITZALDIA

"Argiaren alaba" 19:30etan Potxoenean



azaroak 14, LARUNBATA

ANTZERKIA

"Arrastoak" 20:00etan Sutegin



azaroak 8, IGANDEA

ZINEMA PIKADERO

19:00etan Sutegin



azaroak 13, OSTIRALA

BERTSO-AFARIA

21:00tan Artzabalen



azaroak 15, IGANDEA

IBILALDIA

10:00tan Arratzainen



azaroak 9tik 15era

ERAKUSKETA

"LAUKI" Joseba Larretxe. Liburutegian

noa



Sarrerak-txartelak salgai: Bordatxon, Artzabalen, Lizardin eta Noaua'n.



Euskal Herria ezagutuz

AIZKORRI – ARATZ PARKE NATURALA (GIPUZKOA)

Harkaitz artean hegana

Gipuzkoako sabaia da Aizkorriko mendilerroa, han daude probintziako gailur garaienak, tartean Euskal Herriko ezagunenetako batzuk. Paraje horixe aukeratu dugu artikulu hau, Ihesi sailak emango duen azkena, betetzeko. Proposatuko dizuegun erronka, osorik eginez gero, hamar orduko eta 40 kilometrotik gorako ibilbidea da. Norberaren esku guztia egitea, edo zati batekin konformatzea.

Testua eta argazkiak:

| GORKA AZKARATE |

Aitxuri eta Aizkorri, Arbelaitzeko gailurretik ikusita.




OÑATITIK ARANTZAZURA doan errepidea pikoa da oso. Artzaintzari egindako monumentua eta garai bateko Txopekua jabetxe historikoa atzean utzi –Uribarri auzoan, San Andres ermita ere bertan dago– eta bihurgune estu bat baino lehen dagoen Urteaga baserria pasako ditugu, Urteaga-gain edo Urtiagain izeneko muinora iritsi baino lehen. Aloña edo Gorgomenditik jaisten den gailurreria ebakitzen du muino edo lepo kokkor honek, eta beraz Aizkorriko gailurreria ertz batetik bestera zeharkatu nahi duen txangozale orok hemendik hasi beharko luke bere eraso. Edozein kasutan, ohikoa da zeharkaldia pixka bat errazte aldera kotxez Arantzazura igo eta handik zuzenean Aloñara (1.244 m) igotzea.

Izan ere, Urtiagaindik abiatzen den xendak ez digu hankak berotzeko tarterik ere utziko; lehenengo metroetatik gorantz jotzen du etenik gabe, eta malda gogortzen joango da minutuek aurrera egin ahala. 700 metroko garaiera tartea dago Urtiagain eta gailurreriako lehenengo tontorraren, Aloñaren artean. Eta distantzia oso txikia. Jabondoko txaboletara Aloñako mendikatea iparraldetik saihestuz doan xenda utzi eta Belar gailurrerantz joko dugu, ertzetik beretik, sekulako malda gaintituz.

Behin Belar gailurrean arnasa berreskuratuta, burua jaso eta dagoeneko Aloñako gurutzeta hautemango dugu parez pare, oraindik urrun, baina begien bistan dagoeneko. Belar gailurretik Aloñara dagoen tartea ere pikoa da oso, eta gailur nagusira gerturatu ahala malda zutitzen joango da gainera. Behin gailurra jota, ordea, paisaia ederraz gozatzeko aukera izango dugu eta horrek aurretik pasatako neke guztiak dezente arinduko ditu.

Aizkorriko zeharkaldiaren hasiera

Aloñako gailurrean zenbait margo-ikur horirekin egingo dugu topo; Aizkorriko zeharkaldia hor hasten dela iragartzen diguten seinaleak dira. Zenbait momentutan harritzarrak saihestu eta lasterbideak ere aurkituko ditugu, noski, aurrera egitea erraztuko digutenak.



Norberak aukeratu ahal du txangoa zenbat zaildu. Kurtzezar gailurra da horren adibide: Botreaitzeko gailur nagusira bidean dagoen beste tontortxo bat baino ez da, askok bazterrerera lagatzen dutena. Botreaitzeko gailurra (1.320 m), berriz, ez.

Poliki-poliki gora joango gara, paisaia geroz eta basatiagoan. Haitzezar-teko leporako jaitziera ez da makala, ezta ondorengo gailurra jotzeko igo beharreko malda ere. Gipuzkoa oso gure oinetan dugula irudituko zaigu bidean aurrera egin ahala. Urola ibaia ere oinpean etengabe jaiotzen ari dela sumatuko dugu, Akaitz gailurra (1.312 m) utzi eta Urrabiatzako tontortxo (1.265 m) pasata Arriurdin (1.274 m) aldera goazela. Poliki-poliki, txangoak gordetzen duen gailurrik ederrenetako batera inguratzen ari gara: Artzanburu. Aloñako mendilerrotik Aizkorriko zatira pasatzen ari gara ia oharkabean.

Biozkorniako lepoa, historiaz betea

Biozkorniako lepoak banatzen ditu Aloña eta Aizkorriko mendilerroak.

Historia oparoa biltzen duen igarobidea da, ez baita alperrik bertatik igarotzen Donostiatik Arantzazura doan ibilbide luzea, behin Ormaiztegi, Segura eta Zerain atzean utzita, besteak beste. Legazpi edo Brinkola aldetik Arantzazura joateko ere, hemendik igaroko da ezinbestean txangozalea. Amabirjin harria delako forma geologikoa eta lepoan bertan dagoen putzua atzean utzi eta Artzanburuko maldetara eramango gaituzte margo ikur horiek. Luze gabe joko dugu aipatu gailur magikoa (1.365 m). Ibilbidean estreinakoz, Urbiako zabaldua, Gipuzkoako txokorik berezienetakoa, begien bistan dugu.

Gailurreriak zorrotzetasuna galtzen du gune horretatik aurrera eta ez du atzera berreskuratuko Arbelaitzeko gailurrera iritsi arte. Bitartean, garrantzi txikiagoko tontorugaritara igotzeko aukera izango dugu, baita eskuinaldeko goi-larreetatik aurrera egiteko aukera ere, harik eta Andraitzeko lepoko xenda historikoarekin bat egin eta izen bereko gailurra (1.432 m) jo arte.



Pagadi zoragarria San Adrian inguruan.

Zegama aldetik Urbiara igotzeko makina bat aldiz jarraituko zuten Goierriko hamaika artzainek bide hau, oraindik ere artaldeak igo eta jaisteko erabiltzen dena. Dagoeneko udazkenean bete-betea sarturik gaudela kontuan hartuz, Urbian oraindik dauden artaldeei ez zaie Andraitzeko pasabidean barrera balarara jaisteko denbora askorik gertzen... Iraun dezatela, etorkizunean ere, aspaldiko usadio zaharrek!

Artzanburuko gailurra atzean utzi dugunetik, begietan harturik dugu Arbelaitzeko tontorra (1.525 m), 1.500 metrotik gora zutitzen den gailurreriako lehenengoa. Ikusgarria da bertara igotzeko jarraituko dugun xenda, tarteka harkaitz artean galtzen dena. Eta are ikusgarriagoa, segidan bata bestearen atzetik tontorrek kateatzen goazen heinean jarraituko dugun ertz zorrotza. Iraule (1.515 m), Aitxuri (1.551 m), Aketegi (1.549 m) eta Aitzabal (1.512 m) gailurrak lotuko ditugu, harkaitz artean hegan goazen neurrian, tar-

tean Gipuzkoako sabaia ere joko dugularik Aitxurin. Aizkorriko tontorra (1.531 m) da azken gelto-koa, mendilerroko gailurrik ezagunena eta Euskal Herriko mendirik bisitatuenetako bat.

Neguko kirolen paradisu

Udazkenaren ondoren negua etorri ohi da, eta urtaro horretan erabat antzaldatu du Aizkorrik bere itxura: Pirinioetako gailur handi horietako bat bailitzan, elurrak estaliko dizkio ertz eta isurialdeak. Makina bat mendizale eta eskiatzaileen paradisu bilakatuko da orduan, eta iparraldeko aurpegiak gordetzen dituen kanal famatuek dei egingo diete elur izoztuan euren trebetasuna erakustera ausartzen diren horiei.

Neguko kontuak izango dira horiek, baina. Guri, orain, Aizkorriko gailurra utzi eta txangoari jarraitzea ematea dagokigu. Ibilbidea borobiltzeko, Aratz aldera joatea proposatzen da, horretarako Sancti Spirituko bidetik edo Kalbariokotik

San Adrian aldera jaitsiz. Edonola, 500 metro inguruko garaiera galtzea tokatuko zaigu, ondoren 400 metro irabazteko.

Txangozaleak erabaki beharko du horren gisako ahalegina egiteko indarrak duen oraindik, segidan Urtiagainera itzuli beharko duela kontuan hartuz. Aratzera (1.444 m) igotzeko aukera eginez gero, erabat asebeteko gara. Aizkorri baino askoz mendizale gutxiago erakartzen dituen gailurra izanagatik, edertasun ikaragarria duen parajea da, are gehiago udazkenean, berau inguratzen duten basoak gorritzen hasten direnean.

Urbiako ostaturantz

Zegama-Aizkorri mendi maratoiko margo-ikurrak segituz Aratzarte lepora jaitsiko gara segidan, Aratz mendiaren hegoaldeko aurpegia inguratu eta Askosaroiko txabolara iristeko. Txoko zirrargarria benetan. Belazea zeharkatu eta pagadian sartuko gara berriz ere. Portugaineko lepotik Askiola aldera joko

dugu, basotik atera gabe ia. Gailur apal bat baino gehiago igotzeko aukera izango dugu bidean goazela, Burgalaitz (1.289 m), Pinpil (1.279 m) edo Peruaitz (1.222 m) kasu. Zerrenda nahi adina luza dezakegu, hainbat eta hainbat tontortxok osatzen baitute Aizkorri-Aratz parke naturala, zeharkatu dugun gailurreria nagusiak dituen tontorrik garaienez gain.

Txangoa ez da amaitu, ordea. Oraindik ez gara Urbiara iritsi, artzaintzaren eta euskal mendizale-tasunaren txokorik kuttunenetako batera, alegia. San Adrian aldetik gatozela Kalparmuinotik pasako den bide nagusia jarraitu beharrean Oltza aldetik joatea ere posible izango dugu. Modu batera edo bestera, Urbiako ostatu famatura iritsi eta bertan indarrak berritzeko aukera paregabea izango dugu, ibilbidearen azken zatiari ekin aurretik.

Kilometroak falta dira oraindik Urtiagaineraino. Iferrutzeko lepoa igaro –tartean Enaitz gailurra igotzeko aukera– eta beherantz egingo



Aizkorriko gailurreria, Urbiatik ikusita.

du bideak, Eskistako aterpera lehenengo eta Duruko txaboletara ondoren. Arantzazuko bidea bazterrerera utzi eta Aloñako gailurrak beheko aldetik saihesten dituen pista segituko dugu, ordu batzuk lehenago pasa dugun Belar muinora iritsi arte. Maldan behera aurretik egindakoa desegitea baino ez zaigu

faltako Urtiagainera iristeko: nekata baina zoriontsu. ■



Bisitatu Ihesi.com, aisialdirako webgune partehartzailea.

Xuxen berria

Euskarazko zuzentzaile ortografiko eta gramatikalaren **plugin berriak** zure ordenagailurako

Xuxen 5-ek akats ortografiko eta gramatikalak detektatu eta zuzentzeko proposamenak egiten ditu testuan bertan

Doan deskargatzeko prest: xuxen.eus/bertsioak

Atzo ere polikiroldegia bete-beteta zegoen.

abc **kiroldegia**

Astebururako hainbat iharduera antolatu dituzte.

abc **jarduera**

Zuk ez esan ezer harik eta gurasoek galdetzen dute arte.

abc **galdetzen duten arte**

Ainitz irakurtzen duzu?

abc **Anitz**

xuxen
ixa eta elhuyar da

Indartsua, dotorea, iraunkorra

Irauten duen gauza bakarra aldaketa omen da eta ideia horri jarraituz, datorren astetik aurrera itxura aldatuta jasoko duzu aldizkari hau. Diseinu berriaren gakoak azaltzen saiatu gara hurrengo orrialdeetan.

| GORKA BEREZIARTUA MITXELENA |



ARGIA

0 zenbakia
2015/09/20
1919tik
3,90 euro
www.argia.eus

ALDAKETA BADATOR TXIKITIK ERAGITEN



ESKUETAN HARTZEN DUZUNETIK nabarrituko duzu: tamainaz konpaktuagoa den ARGIA jasoko duzu datorren astean eta aldizkariaren izena letra larri agertuko da berriro azalean hurrengo zenbakitik aurrera. Ez da itxura-aldatze hutsa, aldizkari honen ondareari omenaldi txikia ere egingo diogu, ia mende batez irakurle euskaldunengana iristen aitzindaria izan den medio honen izena horrela agertu izan baita lehen orrian. Handinahikeriarik gabe, hori bai: letra-tipo soil eta eraginkorra hautatu dugu aldizkariaren fase berrirako. Etxeko beste marka, azken hamarkadetan mantxeta osatzen duen bonbilla, hortxe aurkituko duzu, pixka bat txikiago –aztarna ekologikoa gutxitzea logotipoen ardura ere bai baita–.

Berrikuntza nabarmenenetako bat aldizkariaren hasierako parte da. **Panorama** izeneko sail berria estreinatuko dugu azaroaren 15eko zenbakian, asteroko albiste, adierazpen eta datuak bilduko dituen aktualitate atala. Informazioaren munduak hartu duen abiada dela eta, jabetzen gara geroz eta zailagoa dela edonorentzat hemen eta munduan gertatzen dena taxuz segitzea. Dena ezin da irakurri, dena ezin da kontatu, baina garrantzia duena behintzat ez dadila oharkabean pasa: erronka hori jarri diogu gure buruari. Asteko argazkiarekin irekiko dugu saila, pil-pilean dagoen gai baten isla. Albisteak, analisi laburrak, infogramak, sarean arrantzatu-tako adierazpenak... Bizi dugun garaiaren pultsua, erredakzioak hartua.

Gaurkotasunari eskainitako atal horretara etorriko dira orain arte aldizkaria itxi duten bi artikulu ezinbesteko. Xabier Letonaren Maltzagatik analisi politikoa –aurrerantzean **Gaztelu plazatik**– eta Pello Zubiriaren eskutik bestelako munduaren berri ematen duen **Net Hurbil** erreportajea. Asisko Urmenetaren asteroko bineta ere aurreko orriotara ekarri dugu, ez dadila umorea falta.

Informazioaren zehar-lerroak erakutsiz

Aste honetako zurrumbiloak utzi duena argitzen saiatu ostean, patxa-

Taldean erabakitako aldaketa

PROZESU GISA planteatu genuen ARGIAri soineko berria josi behar hau. Zeregin horretaz arduratuko zen lan talde bat sortu genuen iaz, kurtso hasieran eta hilabeteetako lana izan da, profesional bikainei esker gauzatu ahal izan dena: Ametzagaiña taldean bazkide dugun Antzako kideak.

Kazetaritza alorreko premiak asetzeko forma egokienaren bila aritu gara, edukietatik abiatu den gogoetan. Zer argitaratzen dugun baita garrantzitsuena guretzat. Baina, jakina denez, edukiak huts-hutsean zaila dauka gaur egun irakurlearengana iristeko, hura milaka estimulu komunikatiboz inguratu-ta bizi baita. Ikusgarritasunean irabaziko zuen maketa behar genuen

beraz. Berehala ohartu ginen ordea, lehen momentuan deigarrienak egiten diren aurkezpenak nekagarri suerta daitezkeela denborak aurrera egin ahala. Asteroko erronkari eusteko, maila berean behar genituen ikusgarritasuna eta iraunkortasuna.

Lortu dugulakoan gaude: datoren astetik aurrera jasoko duzun aldizkariaren itxurak indartsua izan nahi du irakurlearen begietan, baita dotorea ere; eta uste dugu denborak mesede egingo diola.

Aldaketaren lekuko izateko aukera ere eskaini nahi dizugu: etorri azaroaren 12an 18:30ean Lasarte-Oriako gure egoitzara eta eman zure iritzia ARGIAren itxura-aldaketaz.

Aldizkariaren hasieran aktualitateari tartea: gain-informatuta bizi garen garaitan, hautaketa ona eskaintzea da gure erronka

da pixka batekin irakurtzeko zerbait eskainiko dizugu: **Jendeak** sailarekin orain arte Pertsonaia atalean argitaratutako elkarrizketen onena hartu nahi dugu eta zerbait gehiago erantsi: egile-kazetaritza da betebetean, esateko zerbait daukaten norbanakoekin solasean ondua,

orain argazki ikusgarriagoekin, baita protagonistak hizpide izango dituen gaiak lehen begi-kolpean kokatzeko erraztasun handiagoekin ere.

Diseinu aldetik egin dugun hautu inportanteenetakoa da hori, Jendeak sailean eta beste hainbat artikulu, elkarrizketa eta erreportajeetan ere erabiliko duguna. ARGIA informazioa lantzeko dugun moduarengatik, kazetaritza klasikoren kanonek ezartzen duten gai bakarreko kokapena zurrun samar geratzen zaigu. Zehar-lerroen bila gabiltza, kulturari buruzko artikulu bat idazteak ez du esan nahi politikaz ere idazten ez dugunik; nazioarteko analisiak egiten ditugu genero-



Eskulanen Etxea

Elkano kalea, 5. Donostia 20004
T. 343 420 205 | F. 943 426 522 | M. 688 662 858
info@casalabores.com | www.eskulanenetxea.com



LUA Arkitektoak

hirigintza
nirigintza aholkularitza
udal planak
urbanizazioak
perifazioak
balorazioak
etxebizitza proiektuak
birgaitzeak
barne diseinua...

Rio Argia Kalea 28, 31014 Iruña Tel 948 13 26 97
lua@luark.com



Irailaren 20an Oñatin egin genuen Argia Egunean partekatu genuen astekari berrituaren 0 aleari buruzko iritzia.

ikuspegiarekin. Hori hobeto islatuko dute orrialdeen goiko partean paratuko ditugun etiketa tematikoek.

Gaikako sailkapen hori gure lan egiteko modu berriaren ispilu ere bada. Paperezko ARGIA eta webgunea hobeto koordinatzeko lan talde tematikoak osatu ditugu, bi euskarrietan batera ariko direnak. Eta zehar-lerro ugari ukituko dituzten artikulua izango dira aldizkariaren erdigunea: **erreportaje nagusi batek** astero gai baten inguruan sakontzeko aukera emango digu eta atzetik beste zenbait artikulugurean ardatz diren ildoak landuko dituzte.

Sail finkoak: klasiko berrituak eta nobedadeak

Ez dira faltako gure orrietan jada klasikotzat jo ditzakegun atalak. Jakoba Errekondok astero-astero idazten duen artikulua indartu nahi izan dugu, **Lurrak irauliko gaitu** sailarekin. *Bizi Baratzea* liburuaren egilearen artikulua topatuko dituzu bertan, baita landareekin zeriku-

sia duten beste hainbat kontu interesgarri ere. Bestalde, Nagore Irastabarrenak historiaren zirrikietatik urrea ateratzen jarraituko du bere **Denboraren makinarekin**.

Gai bakarreko sailak gure kazetaritza molderako zurruneziak zirelakoan, zehar-lerroen arabera sailkatuko ditugu eduki nagusiak aurrerantzean

Aldizkariaren azken orrietarako ere erreserbatu dugu berrikuntzarik. Hasteko, zuzeneko emanaldien, filmen eta beste zenbait kultur adierazpideren kronikak argitaratzen hasiko gara, gurean ohikoak diren liburu eta diskoei eskainitako orrialdeen osagarri. ARGIA osatzen dugun guztiok –harpidedun, langile, irakurle, iragarle...– gure txoko partikularra izango dugu astero

argitaratuko den **Komunitatea** orrialdearekin –bertan bilduko ditugu proiektu komunikatibo honetan ematen diren berrikuntzak eta inguruan txikitik eragiten ari diren guztien testigantzak–.

Postrerako berriz, bi gutizia berri –tira, bat berri berria eta bestea, nola esan, birziklatua–. **Argikontra** elkarrizketa bereziak astekariaren eduki serioei akabera emango die: bertan elkarrizketatuek, lan arlo edo kezka oso partikularretatik, mundua begiratzeko beste modu bat erakutsiko digute. Azken orria aldiz, erredakzioan bilketa selektiboarekin eta berrerabilpenarekin daukagun konpromisoaren erakusgarri da. Jakingo duzue honezkero duela urte batzuk gorbatadun grazioso-usteko batzuek web telebista saio bat egin zutela ARGIAren webgunean. Bada, aurrekontu faltagatik kameraren aurrean berriz jarriko ez badira ere, aukera utzi diegu aldizkari berrian orrialde satiriko bat egiteko: beste zereginen bat bilatzeko esan nahi genien, baina **Beranduegi** zen. ■

«Euskara ataleko negoziazioek porrot egin dute»

Donibane Lohizune, 1976. Euskal Konfederazioko eleduna. AEKko irakaslea da, Azkaine eta Senpereko Gau-eskolen arduraduna. Bere aburuz, Baionan urriaren 24ko manifestazioan entzun ziren “Euskara hizkuntza ofiziala!” eta “Euskal Herri Elkargo!” lemak Ipar Euskal Herriak behar duen instituzioaren aldeko deiadar ozenak dira.

| MIKEL ASURMENDI |

7. DEIADAR ekitaldiak milaka lagun batu zituen Baionako karraketan. Euskal Konfederazioko eledun Sébastien Castet honela mintzatu zitzaigun manifestazioaren bihar-munean: “Deiadar manifestaldien historian lehen aldikoz, lurraldetasunaren problematika hizkuntzarenari gehitu zaio. Ondoko hilabeteak erabakigarriak izanen dira. Herri kontseilu guztiek Ipar Euskal Herrirako Elkargo bakarraren alde edo kontra bozkatu beharko baitute. Urriaren 24an bildutako 5.000 pertsonak “baietz” argia eman zuten.

Manifestazioa Euskal Konfederaziok eta Baterak elkarrekin deitua izan zen. Zer adierazten du horrek?

Bateraren sorreran hainbat eragilek parte hartu zuten. Euskal Konfederazioa hastapenetik da haren kide. Azken urteetan Euskal Herriaren instituzionalizatzea da gehien aipatutako gaia, alta, oroitu behar dugu Baterak lau aldarrikapen dituela: berezko unibertsitatea, Laborantza Ganbara, Euskal Institutioa eta euskararen ofizialtasuna. Azken eskakizun horren eramailea Euskal Konfederazioa da. Lau sektoreek elkar osatzen eta sostengatzen

“Iparralderako instituzio politiko sendoa behar dugu, hizkuntza politika ausartagoa aitzina eramateko”.



KEPA ETCHANDY



Argazkian, urriaren 24an Baionan bildutako 5.000 lagunak. Casteten aburuz, ondoko hilabeteak erabakigarriak izango dira.

dugu. Laster, Batera karabanaren bidez Elkargo bakarraren aldeko sozializazio lana egingen da herriz herri, helburu argi batekin: ahal bezainbat herriko kontseiluk Elkargoaren alde bozka dezaten heldu den udaberrian, Elkargoaren sortzeak euskararentzat suposatzen dituen onura guztiek.

Nola dago Euskal Konfederazioa?

Indartsu. 20. urtemuga bete du aurreten. Euskararen alde edo lanean ari diren elkarte guztiak federatzen ditugu: AEK, Seaska, Euskal Haziak, eskola elebidunak, Berria egunkaria, Euskal Irratiak, Bertsularien lagunak... Elkarte guztien onerako, botere publikoen lanaren akuilua gara, bereziki legeen esparruan laguntzen duena.

Herritarrek euskararen inguruko interesa atxikitzen dute? Euskalgintza osasuntsu al dago?

Egoera ez da idilikoa, baina 20 urtetan urratsak eman dira. 2005 urtea mugarrizko izan zen, orduan sortu baitzen Euskararen Erakunde Publikoa (EEP); hizkuntza politika garatzeko ardura duen erakundea. EEPren eskutik heldu zen Hizkuntza Kontseilua. Horiek sortu bagenuen, euskalgintzan eramandako lanari esker izan da.

AEKko langilea ere bazara. Euskara ikasteko eskaera mantentzen da?

Bai. AEKn 1.000 ikasle ari dira Gau-eskoletan, eta paraleloki, formakuntza ematen dugu herriko etxeetako langileentzat, baita administrazioaren hainbat langilerentzat ere. 200 langile inguru formatzen dugu euskaraz urtero, beraz, guk eskaerari ongi erantzuten diogu. Bestalde, irakaskuntzan, Seaska ikastoletan murgiltze ereduak hautatzen duten gurasoen eskaera emendatzen ari da; eskola pribatuetan nahiz publikoan ere elebitasuna handitu da. Eskaera badago, baina horretarako egiturak sendotu behar dira: AEK-k 30 langile ditu, Euskal Irratiak elkarteak beste hainbeste. Adibide bi baino ez dira. Egun, ekimen berriak garatzen eta koskortzen ari dira. Baina, egia da, gero eta proiektu gehiago garatzen ari gara, eta horiei ekiteko baldintzak ez dira onenak. Hau da, legeari eta finantzazioari dagokienean blokeo egoera batera iritsi gara.

“Beste fase batera pasa behar dugu, egunerokoari lotzeko, ezinbestekoa da instituzio politikoa”

Hain zuzen ere, EEPk abiatutako hizkuntza politikak eman zezakeen guttia eman du, dirudienez.

EEPk sabaia jo du gure ustez. EEP sortu bezain laster, Euskal Konfederazioan ari garen kideak deitu zituen arloz arlo, haiek garatu nahi zuten hizkuntza proiektua bideratzeko. Eratu zenetik gaur egunera aurrerapausoak eman dira, hizkuntza publikoa eramateko ez baitzen deus egituraturik, hau da, sortu zenean dena egiteko zegoen. Abantzu hutsetik abiatzen garenean erraza da aitzinatzea, haatik, une batetik goiti, legea ez badago gure alde eta diru baliabideak eskasak badira muga jotzen dugu. Guri hala gertatu zaigu.

Gure ustez, beste fase batera pasa behar dugu. Esaterako, eguneroko beharrei lotzeko, ezinbestekoa da euskal instituzio politikoa izatea. Izan ere, batetik, instituzio horrek erabakiko luke zenbat diru esleitzen dion hizkuntza politikari, eta bestetik, finantzamenduak negoziatuko lituzke Estatuarekin eta Erregioarekin bereziki. Euskarak hats eta bultzada berriak behar ditu. Iparralderako instituzio politiko sendoa behar dugu, hizkuntza politika ausartagoa aitzina eramateko.

Anartean, Hautetsien Kontseiluak kudeatzen duen proiektuko ekimen gutxi izanen dira finantzatuak. Zer gertatu da?

Oroitu behar dugu Garapen Kontseiluari galdetu izan zitzaizkion ekimen bat egiteko. Lurrelde Kontratu sinatzeko zorian zen orduan, eta hainbat atelier muntatu ziren. Euskarari buruzkoa izan zen horietako bat. Euskal Konfederazioak parte hartu zuen horretan beste eragile batzuekin batera. Atelierretik atera ziren ondorioetan oinarriturik, Hautetsien Kontseiluak euskararen aldeko ituna proposatu zuen. Ituna Lurrelde Kontratuaren negoziatu behar zen, hiru atal zituelarik. 1. atala: Hezkuntza Ministerioarekin lehentasunezko norabideen negoziatzea, irakaskuntza esparruan. 2. atala: euskararen formakuntza profesionala. 3. atala: EEPren aurrekontua emendatzea.

Horiek horrela, gure sektoreak 3 milioi eurotik 6 milioira pasatzea eskatu zien espresuki Lurralde Kontratuaren partaideei: Estatuak, Erregioa eta Departamenduari. Alabaina, itun horretako lehen bi puntuei buruz ez daukagu inolako berririk. Hezkuntza Ministerioarekin negoziaketak ba ote diren ere ez dakigu. Profesionalen formakuntzaz deus ere ez. Azken hilabete honetan jakin dugun bakarra da, EEPk erranik, hiru instituzio horietatik heldu behar zen dirua ez dela emendatuko.

Hala ere, Hautetsi eta Garapen kontseiluek dena ez dute ezkor baloratu. Euskalgintzako kideekin adostutako klausula baten bidez negoziatzen segi dezaketela adierazi dute.

Guk egiten dugun konstatazioa hauxe da: euskararen inguruko negoziatioek porrot egin dute. Eragileen aldetik bazegoen konstatazio hori, baina klase politikoak ere badaki jauzi kualitatibo eta kuantitatiboa eman behar zela euskararen alde. Hautetsi batzuek gainera azpimarratu zuten euskara Lurralde Kontratuaren funtsezko atala dela, euskarak egiten duela Lurralde Kontratu berezi. Beraz, euskarari negoziaketan ez bazitzaion behar duen garrantzia ematen, batzuek erran zuten ez zela Lurralde Kontratu izenpetu behar. Negoziozkiek porrot egin dute, baina Lurralde Kontratu izenpetu dute.

2017an Kontratu berrikusteko itxaropena atxiki dute, nonbait.

Bai, hori entzun dugu. Orduan Kontratu aztertuko dela berriz ere. Hau, hori eta beste erran dute, baina euskarak ezin du gehiago itxaron. Blokeatuta gaude. Lege esparruan ez bada aurreratzen Parisen, bederen bien bitartean diru funtsak desblokeatu ditzatela, EEPk hizkuntza politika hobeto eramateko eta eus-

“Gero eta proiektu gehiago garatzen ari gara, baina horiei ekiteko baldintzak ez dira onenak. Legeari eta finantzazioari dagokienean blokeo egoerara iritsi gara”

kalgintzako eragileek ditugun hamai-ka proiektu garatzen laguntzeko, ezinbestekoak baitira.

Pays egitura gaindituta dago eta trantsizio garaia da oraingoa. Arriskutsua eta erabakigarria.

Eragile guztiek hori diote. Nik ez dakit arrisku momentua den, ezta Pays egitura gaindituta dagoen. Nire ustez, bidegurutze batean gaude, erabakigarria naski. Gisa guztiz, bizi dugun kinka aldatuko da. Eta aldatzeko parada badago, iraganean bai klase politikoaren bai jendartearen –Lurralde Kolektibitatearen aldekoak– adostasun zabala izan zelako gure aldarrikapenak erdiesteko.

Frantziako Gobernuak Lurralde Kolektibitateari ezetza eman zion eta prefetaren bidez alternatiba berri bat proposatu du orain.

“Estatuak, Erregioak eta Departamenduak Hizkuntza Politika ontzat eman dute, baina orain, dirudienez, ezin dute lortu behar den finantzazioa”

Eta guk oraindik ez dakigu nola deitu hortik aterako den egiturari. Baina, funtsean, Elkargoak bakarra izan behar du Euskal Herriarendako. Batera eta Konfederazioko kide bezala diot: guk Euskal Herriak instituzio bat izateko aukera ikusten dugu. Elkargo hori Lurralde Kolektibitatea erdiesteko bitarteko etapa bezala ikusten dugu oraingoa. Elkargo bakarrak pauso koherenteak eta ongi koordinatuak emanez gero, gutxieneko garapen harmonizatua izaten lagundu behar digu arlo guztietan, gutxieneko instituzio hori behar dugu bide egiteko. Erran gabe doa, Pays egituraren gure burua arras mugatua ikusten dugu. Ezin dugu 2017 urtera arte itxaron.

EEPko buru Frantxoa Maitiak errana: “Lurralde Kontratuak ez du diru gehiago eman behar euskarazko irakaskuntzan, herri elkargoek baizik.

Guretzat instituzio bakoitzak bere erantzukizuna dauka, kasu horretan Akitania Erregioak. Frantxoa Maitiak Lurralde Kontratuaren negoziaketa eta euskararen aldeko ituna aipatzen ditu. Alta, Estatuak, Erregioa eta Departamendua dira itun horren partaideak, eta ez herrien elkargoak. Arras tronpatu da hori erranez. Hautetsien Kontseiluek hiru instituzioei eskatu die EEPren aurrekontua bikoiztea. Noski, herri elkargoek dirua eman nahi dutela? Bada, bikain. Baina herriak eta herri elkargoak ez dira Lurralde Kontratuaren partaideak. Beraz, EEPren ikusmoldea ez da zuzena, ez dira gauzak nahasi behar. Estatuak, Erregioak eta Departamenduak Hizkuntza Politika ontzat eman dute, baina orain, dirudienez, ezin dute lortu behar den finantzazioa, eta beraiek hitzartutakoa ezin dute bete. Beraz, hor badago inkoherentzia bat: ontzat ematen dute hitzartua, baina aldi berean ez dute sosa ematen. ■

Babeslea: EMUN

emun
EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

HIZKUNTZA ZERBITZUAK | KULTURA ZERBITZUAK | ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO ZERBITZUAK | PARTE HARTZE ZERBITZUAK

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO
www.emun.eus

Gaztetxeko egiteko moduak, behar berrietarako ere balio du

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |



Lakaxita

Zer da: Hainbat pertsona eta kolektibok autogestionatzen duten gune okupatua.

Kokapena: Anaka kalea 20, Irun.

Noiztik martxan: 2005.

Webgunea: Lakaxita.org.



Gaztetxe gisa autogestioan hartutako esperientzia beste hainbat esparrutara eramanez nahi dute Irungo Lakaxitan, tartean zaintza lanetara.

HAMAR URTEK ematen dute askorako, eta tartean, aldatu daitezke beharrak, helburuak, kezak... Irungo Lakaxita gaztetxea izango zena duela hamar urte okupatu zutenei hori bera gertatu zaie. Orduan hogeita urte inguru zituztenek hogeita hamarrak gertu dituzte orain, eta etxebizitza, familia, lana eta antzeko kezak pilatu dituzte bidean. Arazo berriei hasiera hartan aisialdi alternatibo faltari erantzun zioten modu berean egin diote aurre ordea. Hala dio Andoni Egiak: “Beti pentsatu izan dugu zer galderari baino, nola galderari erantzuna emateak izan behar zuela gure abiapuntua. Eta erantzun hau horizontaltasunean, autonomia politiko-ekonomikoan eta autogestioan aurkitu genuenez, egun sortzen zaizkigun behar, desio eta erronkei ere bide horretatik heldu diegu”.

Pasa den otsailean bete ziren hamar urte Irungo Anaka kaleko eraikina hartu zutenetik, baina jada bi urte dira gaztetxe abizena kendu ziotela. Bertako kideak adinean gora zihoazelako, batetik; baina

batez ere, adin tarte zehatz batengana bideratu beharrean, jendarteko edozein sektorerentzat eraldaketa ekonomiko eta soziala bultzatzeko lanabesa izatea nahi zutelako.

Jarraitzen du, hala ere, lehen zuen funtzioa betetzen: eragile politiko eta sozial askoren topaleku da: Irungo gazteak, etorkinen elkar-tekak, Kaleratzeak Stop...

LKXT KOOP

Autogestio ekonomikoarena ez da berria Lakaxitan, lehenago ere bar-tze-kooperatiba eta *backlaba* martxan baitziren bertan. Baina, lehenengo solairuan atondu duten LKXT KOOP espazioaren bitartez, are gehiago ari dira garatzen. Batetik, hirigintza aztergai duen Hiritik-At kooperatibaren bulegoa kokatu dute bertan, eta bestetik, *co-working*erako ere balioko duen bilera gela prestatu dute. Bertan, kooperatibak sortzeko aholkularitza eta laguntza eskaintzen dute.

Horrez gain, bi ekoizpen eta kontsumo kooperatiba ari dira Lakaxita erabiltzen, euren saskien banaketa egiteko.

Zaintza gunea ere laster abian

Autogestio kolektiboa bizitzaren esparru gehienetara eramatea etenik gabeko lana da. Hala uste dute Lakaxitan, eta buruan dute dagoneko hurrengo pausoak zeintzuk izango diren. Tartean, zaintzari dagokion garrantzia eman nahi diote. “Gure haurrak modu kolektiboan zaintzeko espazioa sortu nahi dugu, autogestioa alor horretara eramanez”. Asmo gehiago ere badituzte: sukaldea eta barra kooperatibizatzea, egonaldi artistikoak egiteko guneak sortzea...


Proiektu, kezka, asmo eta gune berriak, baina den dena, hasierako oinarriak mantenduz. Gaztetxeen egiteko moduak balio baitu bizitzaren beste esparruetarako ere. Hala frogatu dute Lakaxitan. ■

EAEko Auzitegi Nagusiaren lehen epaia: aktak euskaraz zilegi dira

EPAIA IRMOA DA, ez du beste helegiterik onartuko. Jurisprudenzia aurrekaria da, bi epaik sortzen baitute jurisprudenzia. Irurako Udalarari eman dio arrazoia.

UEMAren ustez, epai garrantzitsua da hainbat udal aktak euskaraz egiteko zilegitasuna defendatzeko urratzen ari diren bidean. Orain arte Bilboko eta Donostiako Lurralde Auzitegien epaiak zeuden, lehenengoak ezetz ebatzi zuen, bigarrenak berriz baietz. Kontua da EAEko Auzitegi Nagusiak lehen aldiz eman duela epaia eta irmoa dela.

Irurako Udalarari eman dio arrazoia EAEko Auzitegi Nagusiak. Espainiako Gobernuak ordezkarari Carlos Urquijok Irurako Udala auzitara eraman zuen aurrekontuetan Udalbiltzarrentzat diru partida edukitzeagatik. Gobernu ordezkariek eskatutako informazioa euskara hutsean bidali



zuen Udalak, erakunde horrek euskara hutsean funtzionatzen baitu. Urquijok informazio hura ez jasotzat eman zuen.

EAEko Auzitegi Nagusiak ebatzi du EAEn euskara ofiziala denez administrazio publikoek euskaraz aritzeko eta hizkuntza hori ulertzeko gai izan behar dutela, eta beraz, ez du onartu Gobernu ordezkaritzaren helegitea.

Lurralde Auzitegien epaiak jasoak dituzte Bergara, Arama, Elgeta, Gaintza, Amezketa eta Lekeitiok. Lehen bostek aldekoa eta azkenak kontrakoa.

Bahea

Leire Narbaizak Info7 irratian esandakoak:

“Gure sektorea hiltzeko jaiotzen bazen ere, eutanasiak hilko du edo hobeto esanda, lasai hiltzen utziko dute, uzten ari dira.

Bai, laster lanez aldatu beharko dut, hiltze luze honetan kabitu ezinda. Kontua da Euskal Herria ez dela euskalduna, gure ametsa ez dela bete; baina, hala ere, desagertu egingo gara. Poliki, atentzioa eman barik, ia inori ez diolako ardura helduen euskalduntzeak.

Gelak husten ari dira, mila arrazoi direla eta. Batetik garestia delako oso, prezioak eskandalagarriak dira gure hizkuntza, ofiziala ere badena, ikasteko. 8 ordu astean ikasturte osoan 400 eurotik gora dago. Ez ahaztu gaztelania ikastea EAEn doan dela, Eusko Jaurlaritzako hezkuntza sailaren eskutik. Euskara ez. (...)

Eta euskaltegiak hortxe daude, zain, Euskal Herrian oraindik premia gorria dagoelako; sektorearen agonia, ordea, ondo hasita dago, utzikieriaz, nagikeriaz. Ezkorra naiz, baina gremio-ko asko ere hala daude, errealitatearen lekuko garelako.”

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Eragotzi dezagun gazteek emigratzea

BISTAKOA DA krisi ekonomikoak gazteak kolpatu dituela gehien. Belaunaldi oso bat deuseztatzen ari den krisia da, jendarte zaharragoa sorraraziko duena menpekotasun, desberdintasun eta bazterkeria sozial gehiagorekin. Milaka lagun eramango ditu pobrezia. Langabeziak gazteen %50ari eragiten dio –milaka euskal herritar–. Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen arabera, Espainiako Estatuan 15 eta 29 urte arteko gazteen %15ek ez du ez ikasi ez lanik egiten. Lan egiten duten gazteen %71, berriz, behin behineko kontratuean dago, orduka lan egiten. Eta horietatik laurdenak ez du horrelakorik nahi. Lanbide Heziketa, enplegu tasa handiagoak lor ditzakeen arren, erabat abandonatuta egon da. Soldadak oso baxuak dira, gutxi gaintzen dituzte 700 euro. Non daude mileuristak?

Etxebizitza lortu ahal izatea, alokairuan nahiz erostea, ezinezkoa da gazte batentzat. EAEn etxebizitza baten alokairuaren batez bestekoa 732 eurokoa da eta Nafarroan 490 eurokoa. Aurten, lehen hiruhilekoan etxebizitzaren alokairua %6 igo da EAEn. Eta etxebizitza

erostea are zailagoa da, Hego Euskal Herrian batez besteko prezioa metro koadroko 2.015 euro baita; Ipar Euskal Herrian 3.000 euro. Gauzak hala, zaila da gazteak gurasoen etxetik irten eta etorkizunera begira bizitza proiektu bat edukitzea. Gure gazteen emantzipazio adinaren batez bestekoa 30 urtekoa da, europarrena baino lau urte altuagoa.

Patronaletik eta gobernuetatik eskaintzen diguten soluzioa atzerrira lanera joatea da. Formula hori ez litzateke ohikoa izan behar. Euskal Herriak, beste herriek bezala, bere egiturak berritzea behar du, hezkuntzan, produkzioan eta lan arloan ere. Gazteria hemen errotzea behar dugu, atzerrira lan egitera eta bizitzera joan nahi dutenak errespetatuz. Ezin dugu emigratio alternatiba hori orokorki eskaini. Enpresek, gobernuek eta erakundeek ardura osoa dute politika burutsuak aurrera eramateko, gazteek ez dezaten emigratzeko beharrik izan.

Juan Mari Arregi

Barbaroen etorrera eragotzi ezin duten hesi zahar-berriak

Denbora gutxian hesi, horma eta txarrantzak ugaritu ditu Europar Batasunak bere mugetan. Calais, Ceuta, Melilla, Hungaria eta Kroazia arteko muga, Hungaria-Serbia, Bulgaria-Turkia, Grezia-Turkia... Duela 2.300 urte Harresi Handia eraiki zuen Txinak, 128. urtean Hadrianok Eskoziakoa. Alferrik: denek egin dute porrot.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

SERBIAREKIKO MUGAK DITUEN 175 kilometroak “defentsa lerroa” bataiatuta, Hungariak alanbre arantzadunez hornitu ditu. Greziak Evros ibaiaren inguruko 30 kilometro itxi ditu. Bulgariak Turkiarekiko frontieraren burdinazko hesia altxatu 30 kilometrotan, 130 km gehiagoz luzatzeko asmoz.

“Mendebaldeko iritziak uste izan dute Berlingo harresia erori ostean historia amaitu omen zen moduan amaitu zirela murrak ere... Baina geroztik frontera gatazkatsuak ugaritu egin dira”. Horrela mintzo da Claude Quétel historialaria *Le Un* astekariak galdekaturik. Quetelek 2012an “*Murs, une autre histoire des hommes*” liburua plazaratu zuen, harresien historiaz gain mendetan estatu eta inperioek eraikuntza horiei emandako funtzio eta esanahiak azalduz.

Harrizko eta txarrantxazko murruen zerrenda luzean lehenbiziko marka handia Txinak ezarri zuen Kristo aurreko III. mendean. Haren aldean txikerra baina antzeko helburuekin, barbaroak hesiaz beste alde uztea, erromatarrek 128. urtean eraiki zuten gaur Eskoziaren eremuaren kontra Hadrianoren murrua.

“Harresiek politika egiten dute, zerbait adierazten”, dio Quetelek. Zibilizazioen eta inperioen finka-

tzea nabarmendu nahi dituzte, kanpora begira baina barrura ere bai. Kanpokoetatik babesteaz gain, barrukoei esan nahi diete: “Zibilizazio beraren kide zarete, kanpoan diren horiek barbaroak dira, ez dira mintzo zuen hizkuntza berean”.

Quetelen belaunaldiko jendea asko markatu zuen Berlingo harresiak, 1961ean eraiki eta 1989an eraitsi zenak. Oso mintzo gogorra zeukan Ekialdearen eta Mendebaldearen arteko Gerra Hotzaren barruan murru hark, Eki Alemaniako gobernuak eraikuntza harekin nahi baitzien eutsi Mendebaldeko bizimodu oparoagoaren bila alde egin nahi zuten herritarrei. Ezberdina izanik ere, Gerra Hotzaren umea da oraindik Ipar eta Hego Koreak bereizten dituen harresia ere, ironiaz bezala “gune desmilitarizatua” deitzen zaiona.

Murruen sailkapenarekin segituz, Israelek Zisjordaniako eremu hobereak bereganatuz altxatakoari “harresi antiterrorista” deitu dio beti, nahiz eta palestinarrekin batera munduan askok uste duten eraikinarekin juduek Palestinarekiko kolonizazioa egonkortzea dutela helburu nagusia. Gazaren mugan Egiptok egindako harresi eta lubaki handiaz osatzen da.

Eredu horrekiko oso hurbil ikus-

Bela Szandelszkyren argazkian, Ekialde Hurbiletik iritsi iheslariak Hungaria mugan erakitzen ari zen hesia zeharkatzen. Ondo begiratuz gero ikus daiteke urteotan asko hobetu dutela txarrantxaren eraginkortasuna; haragia mozten duten labana zorrotzez egina da argazkikoa, askoz mingarriagoa baserritarrek aziendarentzako darabilten betiko alanbre arantzaduna baino. Eta hala ere, behar handian denak aurkitzen du modua hesia gainditzen ahalegintzeko. Erri de Luca italiarrak *Solo andata* poema liburuan dio: “Oinutsik jin gara, zolarik gabe / eta ez dugu sentitu ez arantza, ez harri, ez arrabioen eztenik. / Inongo poliziak ez gaitu zanpatuko / dagonekoz zaurituta baikatoz. / Zuen zerbitzariak izango gara, erditzen ez dituzuen umeak, / gure bizitzak izanen dira zuen abentura liburruak. / Homero eta Dante dakartzagu, itsua eta erromesa, galdu duzuen usaina, zapaldu duzuen berdintasuna”.

ten ditu Quetelek debekuen hormak, zeinetan famatuenak baitira ghettoak, Varsoviakoa eta beste. Hain ezaguna ez dena da juduei lehenbiziko aldiz Venezian ezarri zietela horrelako hesia.

Hala ere, XXI. mende hasieran indarrak handiena hartzen ari direnak migrazioen kontrako hesiak dira. *Tortilla border* ere deitu izan zion hura Ronald Reaganek eraiki zuen Mexikotik zetozen etorkinei bidea eragozteko, 3.141 kilometroko hesia.

Baina klandestinoek nahiko erraz zeharkatzen zuten, 2006tik aurrera, George Bush semearekin, txarrantxazko hesia sofistikatu dute, gogortu, radar sarek osatu. Gaur *Big Brother* deitzen zaio. Kaliforniarako pasabidea erabat ixtea lortu du eta orain bizimodu hobearen bila datozen latinoek Arizonako basamortutik arriskatu behar izaten dute.

Porrotaren aitortza

Europar AEBei jarraitu diegu honetan ere. Bushen hesia mespretxatu ostean, hamar urte berandua go Europar Batasunak finantzatu zituen immigrazioaren kontrako lehenbizikoak bere mugetan, Ceuta eta Melillan Espainia eta Maroko bereizten dituen pasabidean. Espainiarrez mintzo dira Schengen guneko lehenbiziko harresiak.



Gero eta altuago eta gainditzen zailagoak diren bi hesiok osatu dira Atlantikoa baperez zeharkatzera ausartzen direnak lokalizatzeko radar sareez. Gero eta indar handiagoa daukan Frontex egitura militarren presioz, afrikarrek Espainiarako abentura utzi eta Libian barrena jo behar izan dute Italian lehorratzera, edo Turkian barrena Greziako uharteetara.

Frontex da Europar Batasunaren mugak zaintzen dituen beso armatua. Varsovian dauka egoitza eta ez da ondo ezagutzen bere lan egiteko modua. Azken bi urteotako etorkin uholdeen poderioz, aurrekontuz eta ahalmenez sendotu dute europarrak Frontex.

Europa gogortzeko prozesua-

ren hurrengo fasea izan da migrazio klandestinoen kudeaketa azpikontratatzera. Marokorekin egin da lehenbiziko saioa: Europak Rabateko agintariei ordaintzen die honek mugaren bere aldetik kontrolatu ditzan etorkinak, kanpaleku berezietan aterpetu, arakatu, fitxatu, kanporatu eta abar. Muga kudeatzeko modu honen bitartez Ipar aberatsa saiatzeko den bideratzen Hego txirotik datorkion presioa.

Eki-Mendebal konfrontaziotik Ipar-Hego tentsiora pasatu gara. Batetik Ipar aberatsa, zaharra, demografiak gainbehera datorrena; bestetik Hego gaztea, askoz populatuagoa eta ikaragarri txiroa. Hontan Quetelek beretzako hartzen

ditu Jean-Christophe Rufinek duela 25 urte “*L’Empire et les nouveaux barbares*” (Inperioa eta barbaro berriak) liburuan iragarritakoa.

Rufinek paralelismoa nabarmendu zuen Erromatar Inperioak azken mendeetan ezagutu zuen barbaroen migrazioen eta 1991rako Hegoaldetik iritsi zitezkeela susmatzen zenaren artean. Mende laurden beranduago Quetelek gehitzen du antza badutela IV. mendeko –Inperioa ahultzen ari zen garaiko– agintari erromatarrek eta gaur Bruselan agintzen dutenek, “haiek bezala hauek ere fenomenoari aurre egiteko eta baita ulertzeko ere gaitasunik ez daukatenak”.

Herritarron buruetan, alabaina, txarrantxa eta murruek lotsagarriak dira. Askori entzuten zaio ez litzatekeela behar frontierarik, gizakiak libre zirkulatu ahal izan dezala nahi duen lekutik. Mugarriak, ordea, hemen daude, gero eta bortitzago.

Harresiak berresten du indartsuaren ahalmena ahularen aurrean. “Indartsuak –dio Quetelek– ez dio bere etxean sartzen utzi nahi ahulari. Funtsean, aberatsaren eta txiroaren aurkakotasunaz ari gara, populazioen arteko desoreka sakonaz. Porrotaren aitortza da. Beste aldean dagoen miseriaren adierazle. Murruren alde onean zaude edo txarrean. Badira goseak hiltzen direnak eta argaltzeko errejimena egin behar dutenak”.

Alferrikakoak edo ez, beldur denak beti jotzen du hesietara. Rio de Janeirok hiru metroko batez inguratu zuen 2009an Dona Marta favela, inguruko biztanle aberatsagoak babeste aldera. ■





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Agur Maltzaga, agur

INDEPENDENTZIA eta EAJ binomioaz denetarik iritziak entzungo dira: EAJk ez duela inoiz independentzia serio bilatuko; edo akaso bai, baina independentismoaren presio handia beharko duela horretarako; independentziarako unea ikusten duenean, orduan bai, jauzia emango duela...

Euskal Herrian independentzia oso urruti dagoela irudikatzen du egun independentistenak ere. Erabaki eskubidera hurbiltzen gara lantzean behin eta kito. ETaren ondorengora itxaron behar ei zen soberanismoan beste molde batez ekiteko, haren jardun armatuak elkarlana oztopatzen zuen eta. Eta hala zen, zalantza barik, baina armak isildu ondoren elkarlan horren zantzurik ez da agertu, Gure Esku Dagoren ekimen oraindik nerabeetan ez bada.

Jeltzaleek Estatuarekiko beste itun bat bilatuko zutela agindu zuten 2012ko Eusko Legebiltzarreko hauteskunde programan, Madrilekin Kontzertu ekonomikoaren pareko kontzertu politikoa erdiesteko. Prozedura honakoa zen: Eusko Legebiltzarrean Autogobernu Lantaldea sortu, 2014aren amaierarako honek bere lana bukatu eta ondoren estatutu berri baterako testu artikulatua prestatu, 2015ean herritarrei kontsulta egiteko. Urriaren hondarean iragarri zuen Joseba Egibarrek agindutakoa ez zela beteko, Lantaldearen lana luzatu dela eta ez dagoela denborarik testu arautua gauzatzeko.

Edonor ohar liteke, oster, euskal herritarrek erabakitzeaz ari garenean, denbora kontua baino serioagoa eta sakonagoa dela arazoa. Egibarren gertukoa den

Xabier Barandiaran jeltzale eta Deustuko Unibertsitateko irakasleak berak argi zioen EHUko udako ikastaroetan: ez dago independentziarako baldintzarik, hainbat arrazoirengatik, baina funtsean ez dagoelako horretarako indarririk eta estrategiarik; garaiak aldatu egin dira, abertzaleen arteko elkarlan eta komunikazio eza eta beste hainbat arrazoirekin jantzi zituen bere esanak (ikus Luis-txo Fernandez-en uztailaren 7ko Sustatuko kronika).

GERNIKAKO ESTATUTUA hilda dago, esan zuen ELAk Gernikan 1997ko urriaren 19an. Sindikatuko idazkari nagusi ohi Jose Elorrietak, PPren garaiko Gobernuak estatutua betetzeko zuen asmo ezaren isla jartzen du Rodrigo Ratok –bai, egun ustelkeriagatik auzipetua den berak– INEMeko transferentzietz orduan zioena: “Ez dira egingo, ez bizitza hone-tan, ez bestean” (*Esan eta Egin, Joxe Elorrietari elkarrizketa*).

Maltzagako gar beti ahul hori, pizten baino itotzen ari da ETaren ondorengo eszenatokian

Euskal gizarteko aktore asko asaldatu ziren, baina ekitaldi hartan izan ziren EAJ, EA, HB, Ezker Batua, Zutik, Elkarri, LAB, EHNE eta beste hainbat erakundetako ordezkari. Zerbait berria ereiten ari zen eta urtebete eskasera han izandakoez Lizarra-Garaziko Ituna izenpetu zuten. Honek porrot egin ondoren, Ibarretxe Plana ernetzen hasi zen eta honen

lehen hondoratze zantzuekin batera garatu zen Loiolako prozesua. Elorrietak dio begi onez ikusi zituztela biak, Ibarretxerenaz ordea, laster ohartu zirela ezin zela urruti joan: “Denboraren poderioz, inolako planik ez zeukala konturatu ginen eta, beraz, ez zuela asmorik kutsu soberanistako helburu hori aliantza politika batean oinarritzeko”. Loiolako saioaz: “Ezker abertzalea ezin da gauza batean erratu. Ez du indar korrelaziorik, hori berak bakarrik lortzeko. Ezin du. Beraz, besteak ez dio emango. Euskal erabaki esparrua indar korrelazio arazo bat baita, batez ere”.

Ez dago oso garbi ezker abertzalea ohartu den orain ere bakarrik ezin duela, EH Bilduk orain-tsu aurkeztu baitu Eusko Legebiltzarrean aurrera ateratzeko inongo aukerarik ez duen Kontsulta Legerako proposamena. Edo seguruenik badaki, baina orduan hobeto neurtu beharko luke txikira eta handira jokatzearna, behar baino lehenago ekime-nik erre gabe.

Eta EAJk zein indarrekin lortu nahiko ote du estatus politiko berria? Eusko Jaurlaritzan PSE-EErekin du akordioa, Gipuzkoa-ko Diputazioan koalizioan gobernatzen du harekin, eta Autogobernu Lantaldean PSE eta PP noiz hurbildu zain egon da, EH Bildurekin bakarrik abiatu nahi izan barik.

Zantzu gero eta gehiago daude: abertzaletasunaren bi adar nagusiak gero eta gehiago bakoitza bere aldetik ari da burujabetza estrategia berrien bila. Maltzagako gar beti ahul hori, pizten baino itotzen ari da ETaren ondorengo eszenatokian. ■

elikadura burujabetza

INDEPENDENTZIA

ingurumena

oroimen historikoa

PAREKIDETASUNA

giza eskubideen defentsa

EUSKALZALETASUNA

demokrazia zuzena

DESOBEDIENTZIA ZIBILA

herrien mundua

ERABAKITZEKO ESKUBIDEA

sexu askapena

ARGIA

ARGIA komunitatea osatzen dugun guztion GUNEA da honakoa. Bertan, harpidedunek zein Piztu Ezazu Argiaren bitartez ekarpen ekonomikoa egin duzuen lagunek, ARGIAren baloreekin bat egiten duten produktu eta zerbitzuen **ZOKETAN** parte hartzeko aukera duzue.

HURRENGO HILABETETARAKO PROPOSAMENA

Balore hauen inguruan lan egiten duten eragile eta mugimenduen lanaren erakusleho izango da, printzipio horiekin bat egiten duten material eta zerbitzuen berri eman eta zozketatzeko aukera egongo delarik.

AZAROKO SARIAK

Bitartean, ARGIAkideoi zuen babes eskertzen jarraitzeko, aurten kaleratu ditugun produktuen zozketan parte hartzera gonbidatu nahi zaitugu:

URRIKO SARITUAK

BIZI BARATZEA LIBURUA

JOSE FELIX ZAMAKONA ARANGUREN (MARKINA-XEMEIN)
KARLOS ZARRAGA ELLAKURIA (ZARATAMO)
ANA M. ZUBIARREMENTERIA OLAÑETA (EIBAR)
BLANCA BEITIA BENGEOA (GASTEIZ)
IMANOL ARLUZIAGA ESNAL (DONOSTIA)

EUROPAKO HERRIEN MAPA

EGOITZ UNAMUNO LOIDI (SORALUZE)
ESTEBAN ETXEBERRIA URREAGA (HERNANI)
EDURNE ZUAZABEITIA OLABE (GASTEIZ)
ANTTON IDIAKEZ KORTA (EZKIO-ITSASO)
ELGOIBARKO EUSKALTEGIA AEK (ELGOIBAR)

ARGIA KAMISETA

AURO ANSORREGI ALTZIBAR (MUTRIKU)
IÑAKI URUTXURTU FERNANDEZ (ANTSOAIN)
ENEKO BARBERENA MONDRAGON (ARRASATE)
PEDRO AZKUE BERSALUZE (ZARAUTZ)
XABIER UGARTE BILLAR (TOPAS)



Bizi Baratzea liburua
5 opari



Europako herrien mapa
5 opari



Argia kamiseta
5 opari

ARGIAn gure gaiak dira gure baloreak,
ARGIAkideak gure oinarria

PARTE HARTZEKO

☎ 943 371 545
gunea@argia.eus
www.argia.eus/gunea

ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com